

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 1013/2006/EE ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA
KONTSEILUARENA, 2006ko ekainaren 14koa, hondakinak lekualdatzeari buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*Reglamento (CE) No 1013/2006 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 14 de junio de 2006, relativo a los traslados de residuos*»

I

(Aplikatu ahal izateko, argitaratu egin behar diren egintzak)

**1013/2006/EE ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,
2006ko ekainaren 14koa
hondakinak lekualdatzeari buruzkoa**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Trataturia eta, bereziki,
haren 175. artikulua 1. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena
aztertu dute⁽¹⁾,

Kontsulta egin diote alde zuzenetik Eskualdeetako
Komiteari,

Trataturaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari
jarraiki⁽²⁾,

Honako hauek kontuan hartuta:

- (1) Erregelamendu honen helburu eta xede nagusia ingurumena babestea da, eta, beraz, erregelamendu honek nazioarteko merkataritzan izan ditzakeen ondorioak zeharkakoak dira.
- (2) Europako Kontseiluaren 259/93 (EEE) Erregelamendua –Europar Batasunaren barnean, sarrean eta irteeran hondakinak lekualdatzeko dagoen zaintzari eta kontrolari buruzkoa dena⁽³⁾–, aldaketa garrantzitsuak izan ditu hainbat aldez, eta orain berriz ere aldatu behar da. Bereziki, honako hauek sartu behar dira Erregelamenduan: Batzordearen 1994ko azaroaren 24ko 94/774/EE Erabakia, Europako Kontseiluaren 259/93 (EEE) Erregelamenduan jasotako jarraipen-agiriaren ereduari buruzkoa dena⁽⁴⁾; eta Batzordearen 1999ko ekainaren 3ko 1999/412/EE Erabakia, Europako Kontseiluaren 259/93 (EEE) Erregelamendua 41. artikulua 2. paragrafoan ezarritako informazio-arloko betebeharra betetzeko estatu kideek erantzun behar duten galdetegi bat duena⁽⁵⁾. Hortaz, argitasun gehiago lortze aldera, 259/93 EEE Erregelamendua ordeztu behar da.

(3) Europako Kontseiluaren 93/98/EE Erabakia⁶ zehatz aztertzen du Erkidegoaren izenean 1989 martxoaren 22an egindako Basileako Hitzarmena –hondakin arriskutsuak mugaz haraindi lekualdatzeko egiten diren mugimenduak kontrolatzeari eta hondakinak ezabatzei buruzkoa dena⁽⁷⁾–, Erkidegoa Hitzarmen horretako kidea baita 1994. urteik. 259/93 (EEE) Erregelamendua onetsiz, Europako Kontseiluak arauak ezarri ditu mugimendu horiek gutxitzeko eta kontrolatzeko. Arau horiek, besteak beste, finkatu dira hondakin mugimenduak gainbegiratzeko eta kontrolatzeko indarrean dagoen Erkidegoko sistemak Basileako Hitzarmenean jasota dauden eskakizunak behar bezala bete ditzan.

(4) Kontseiluaren 97/640/EE Erabakia⁽⁸⁾ ondo aztertzen da Erkidegoaren izenean onestitako Basileako Hitzarmenaren aldaketa, Alderdien Batzarreko III/1 Erabakia ezarritakoa. Aldaketa horren bidez, erabat galarazten da Hitzarmenaren VII. eranskinean aipatutako estatuetatik eranskin horretan jasota ez dauden estatuetara hondakin arriskutsuen esportazioa, hondakinok ezabatze asmoz egin nahi dena; eta, era horretan, 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera erabat debekatu nahi dira Hitzarmenaren 1. artikulua 1. paragrafoaren a) idatz-zatian aipatzen dituen hondakin arriskutsuak balorizatze egin nahi diren esportazio guztiak. Europako Kontseiluaren 120/97 (EE) Erregelamendua⁽⁹⁾ 259/93 (EEE) Erregelamendua aldatu zuen..

(5) Erkidegoak ELGEren Kontseiluaren C(2001) 107 Azken Erabakia, C(92) 39 Azken Erabakia berrikusteari buruzkoa, onetsi du. Izan ere, C(92) 39 Azken Erabakiaren bidez, balorizatze eragiketarako egiteko mugaz haraindi lekualdatzen diren hondakin arriskutsuak kontrolatzen dira (ELGEren Erabakia), eta, hala, C(2001) 107 Azken Erabakiari jarraiki, Basileako Hitzarmenaren hondakin zerrendak harmonizatu eta beste betekizun batzuk berrikusi nahi dira. Horrenbestez, C(2001) 107 Azken Erabakiaren edukia Erkidegoaren legerian sartu beharra dago.

¹ 108 EO C, 2004-04-30, 58. or.

² Europako Parlamentuaren 2003ko azaroaren 19ko irizpena (87 E EO C, 2004-4-7koa, 281. or.), Kontseiluaren 2005eko ekainaren 24. jarrera bateratua (206 E EO C, 2005-8-23koa, 281. or.), Europako Parlamentuaren 2005eko urriaren 25eko jarrera (egunkari ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 29ko erabakia.

³ 30 EO L, 1993-02-06koa, 1. or. Azken batean, Batzordearen 2557/2001 [EE] Erregelamendua (349 EO L, 2001-12-31koa, 1. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

⁴ 310 EO L, 1994-12-3, 70. or.

⁵ 156 EO L, 1999-06-23, 37. or.

⁶ 39 EO L, 1993-02-16, 1. or.

⁷ 39 EO L, 1993-02-16, 3. or.

⁸ 272 EO L, 1997-10-04, 45. or.

⁹ 22 EO L, 1997-1-24, 14. or.

- (6) Erkidegoak 2001eko maiatzaren 22ko Stockholmeko Hitzarmena sinatu du, alegia, kutsagarri organiko iraunkorrei buruzko hitzarmena.
- (7) Garrantzi handiko kontua da hondakinak lekualdatzeko zaintza eta kontrola ondo antolatzea eta arautzea, hartara, ingurumenaren kalitatea eta gizakien osasuna gordetzeko, zaintzeko eta hobetzeko dagoen beharra kontuan har dadin eta, era berean, Erregelamendua era bateratuago batean ezar dadin Erkidego osoan.
- (8) Horrez gain, garrantzi handikoa da Basileako Hitzarmenaren 4. artikularen 2. paragrafoaren d) idatz-zatian jasota dagoen betekizuna. Betekizun horren arabera, hondakin arriskutsuak ahalik eta gutxien aldatu behar dira lekuz, betiere, hondakin horiek ingurumen-aldetik zuzen eta eraginkortasunez kudeatzeko lanarekin bat etorrita.
- (9) Horrez gain, kontuan hartu behar da, Basileako Hitzarmenaren 4. artikularen 1. paragrafoari jarraiki, alde guztiek eskubidea dutela Hitzarmen honen II. eranskinean jasota dauden hondakinen edota hondakin arriskutsuen inportazioa debekatzeko.
- (10) Erregelamendu honen aplikazio-eremutik kanpo utzi behar dira indar armatuek eta sorospenerako erakundeek sorrarazitako hondakin arriskutsuak lekualdatzeko mugimenduak, betiere, inportazioa Erkidegoan egiten bada egoera jakin batzuetan egonda (barne hartzen da erkidegoen artean egiten diren joan-etorriak, behin hondakinak Erkidegora sartu ondoren). Lekualdaketa horiek nazioarteko Zuzenbidea eta nazioarteko akordioak bete beharko dituzte. Kasu horretan, alde zuzenetik jakinarazi beharko zaie igarotzako eta helmugako agintari eskudun guztiei eta, orobat, Erkidegoko helmugako agintari eskudunari, hondakin horien lekualdaketa eta helmugaren berri.
- (11) Nahitaez saihestu behar da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko urriaren 3ko 1774/2002 (EE) Erregelamendua bikoiztea, gizakien kontsumorako ez diren animalien azpiproduktuei ezarri ahal zaizkien osasun-arauak finkatu dituen erregelamendua⁽¹⁾ bikoiztea, alegia. Izan ere, Erregelamendu horrek hainbat xedapen jaso ditu, honako alderdi hauek barne hartzen dituztenak: Erkidegoaren barruan, Erkidegora eta Erkidegotik lekualdatzen diren animalien azpiproduktuen bidalketa orokorra, kanalizazioa eta mugimendua (biltzea, garraiatzea, manipulatzeko, prozesatzeko, erabiltzeko, balorizatzea edo ezabatzea, erregistro bat mantentzea, eta laguntzari eta trazabilitateari buruzko agiriak).
- (12) Gehienez ere Erregelamendu hau indarrean sartzen den egunean, Batzordeak txosten bat aurkeztu beharko du, animalien osasunaren eta osasun publikoaren arloan indarrean dagoen sektoreko legeriaren eta Erregelamendu honen xedapenen arteko harremanari buruz. Horrez gain, epe berean, legeria hori Erregelamendu honen arabera egokitzeko egin beharreko proposamen guztiak aurkeztu beharko ditu, kontrol-maila baliokidea lortze aldera.
- (13) Hondakinak estatu kide baten barruan lekualdatzeko mugimenduen zaintza eta kontrola estatu kide horri dagokion kontua bada ere, hondakinak lekualdatzeko sistema nazionalek aintzat hartu behar dute koherenteak izan beharko dutela Erkidegoko sistemarekin, hartara, ingurumena eta gizakien osasuna babesteko maila altua izango dela bermatu ahal izateko.
- (14) Balorizatze jarduerak egiteko diren eta III., IIIA edo IIIB eranskinetako zerrendetan jasota ez dauden hondakinak eta, orobat, ezabatze jarduerak egiteko hondakinak lekualdatzen direnean, dena modu egokian eta ezin hobean gainbegiratu eta kontrolatu beharko da, eta, ildo horretan, hondakin horiek lekualdatzeko baimena aurretiaz eskatu beharko da, idatziz eskatu ere. Era berean, prozedura horrekin batera, aurretiazko jakinarazpena egin beharko da, hartara, eskumena duten agintariak informazio osoa izan dezaten, gizakien osasuna eta ingurumena babesteko beharrezkoak diren neurri guztiak hartu ahal izan ditzaten eta, orobat, hondakin horiek lekualdatzearen kontrako arrazoiak prestatu ahal izan ditzaten.
- (15) Balorizatze jarduerak egiteko III., IIIA edo IIIB eranskinetako zerrendetan jasota dauden hondakinak lekualdatzen direnean, hondakinak gainbegiratzeko eta kontrolatzeko gutxieneko maila bermatu beharra dago; eta, horretarako, era horretako hondakinak lekualdatu nahi izanez gero, horiekin batera informazio zehatz bat eraman beharko da nahitaez.
- (16) Erregelamendu hau era bateratuan aplikatu behar da eta, horrez gain, barne-merkatuaren funtzionamendu egokia bermatu beharra dago. Horiek horrela, eraginkortasuna hobetze aldera, ezinbestekoa da jakinarazpenak izapidetzea, jakinarazpenok egiteko eskumena duen agintariaren bidez.
- (17) Bestalde, fidantza-sistema edo aseguru-sistema baliokidea ondo argitu beharra dago.
- (18) Hondakinak ekoizten dituztenek erantzukizuna dute ingurumena behar bezala zaintzen duen hondakinen kudeaketa-mota bat lortzeko. Hortaz, bada, ahal dela, hondakinen ekoizleek bete beharko dituzte hondakinak lekualdatzeko mugimenduei buruzko agiriak eta jakinarazpena.

¹ 273 EO L, 2002-10-10ekoa, 1. or. Azken batean, Batzordearen 416/2005 [EE] Erregelamenduak (66 EO L, 2005-03-12koa, 10. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

- (19) Bestalde, babes-prozedurak ezarri beharko dira jakinarazlearentzat, alde batetik, argitasun juridiko gehiago izateko, eta, bestetik, Erregelamendu hau era bateratuan ezarriko dela eta barne merkatua behar bezala ibiliko dela bermatzeko.
- (20) Ezabatzeko lekualdatzen diren hondakinei dagokienez, estatu kideek kontuan izan beharko dituzte hurbiltasuna, balorizatzeko lehentasuna eta autosufizientzia bezalako printzipioak estatu eta erkidegoaren mailan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko apirilaren 5eko 2006/12/EE Zuzentarauak – hondakinei buruzkoa denak ⁽¹⁾– xedatutakoa betez; eta, ildo horretan, neurriak hartu beharko dituzte, Tratatuari jarraiki, ezabatu nahi diren hondakinak oro har edo zati batean debekatzeko edota sistematikoki haien aurka azaltzeko. Gainera, kontuan izan beharko da 2006/12/EE Zuzentarauak ezarri duen betekizuna. Betekizun horri jarraiki, estatu kideek hondakinak ezabatzeko instalazioen sare bateratua eta egokia eratu behar dute, era horretan, alde batetik, Erkidego osoak laguntza beharrik izan ez dezan hondakinak ezabatzeko gaitan, eta, bestetik, estatu kide bakoitzak helburu hori lortzera bere kabuz jo dezan, betiere, kontuan izanik inguruabar geografikoak edota hondakin-mota jakin batzuk biltzeko beharrezkoa izan daitekeela instalazio bereziak izatea. Era berean, estatu kideek ondo bermatu beharko dute Kontseiluaren 1996ko irailaren 24ko 96/61/EE Zuzentarauak – kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoa denak ⁽²⁾– finkatu dituen hondakinak kudeatzeko instalazioetan, Zuzentaru horrek azaldu dituen eta eskura dauden teknikarik onenak erabiliko direla, instalazioetako baimenari jarraiki, eta, orobat, hondakinak behar bezala tratatuko direla, Erkidegoko Zuzenbidean ezarritako ezabaketa-jarduerei buruz lotesleak diren ingurumena babesteko arauak betez..
- (21) Balorizatu nahi diren hondakinak lekualdatzeari dagokionez, estatu kideek ondo bermatu beharko dute, 96/61/CE Zuzentarauak arautzen dituen hondakinak kudeatzeko instalazioetan, Zuzentaru horretan jasota dauden eta eskuragarri dauden teknikarik onenak erabiliko direla, betiere, instalazioetako baimenari jarraiki. Era berean, estatu kideek ondo bermatu beharko dute, hondakinak tratatzean, legearen arabera lotesleak diren ingurumena babesteko arauak beteko direla, Erkidegoko Zuzenbidean finkatuta dauden balorizazio-jarduerei dagokionez. Orobat, 2006/12/EE Zuzentarauak 7. artikulua 4. paragrafoan ezarritakoaren arabera, estatu kideek era berean bermatu beharko dute, hondakinak tratatzean, Zuzentaru horri jarraiki finkatu diren kudeatze-planak
- beteko direla, era horretan, Erkidegoko legerian jasota dauden hondakinak balorizatzeko edo birziklatzeko betebeharrak lotesleak bete daitezten.
- (22) Oso lagungarria izan daiteke, hondakinen instalazioetan eta hondakin bereziak tratatzeko instalazioetan, Erkidego osoan nahitaez bete beharreko eskakizunak prestatzea, eta, era berean, Erkidegoko Zuzenbidean dauden xedapenak betetzea, hartara, Erkidego osoan ingurumena babesteko maila altua ezarri ahal izateko, birziklatze-arloan joko-arau bateratuak sortzeko, eta ekonomia-aldetik birziklatzeko bideragarria izan daitekeen barne-merkatuaren garapenari oztoporik ez jartzeko. Hortaz, birziklatze-arloan, ezinbestez sortu behar ditugu Erkidego osoko joko-arauak, esparru jakin batzuetan arau bateratuak ezarri, eta, hala behar denean, bigarren mailako materialei aplikatuz, azken batean birziklatutako gaien kalitatea hobea izan dadin. Hala behar denean, Batzordeak lehenbailehen aurkeztu beharko ditu hondakin jakin batzuetarako eta birziklatze-instalazio zehatz batzuetarako arau horiei buruz izan ditzakeen proposamenak. Horretarako, hondakinen estrategiari buruzko azterlan gehigarri bat egin beharko du, eta kontuan izan beharko ditu indarrean dagoen Erkidegoko legeria eta, era berean, estatu kideetan dauden legeriak. Bien bitartean, baldintza jakin batzuetan, aukera eman beharko da planifikatu diren lekualdaketen kontrako arrazoiak aurkezteko, betiere, horiei dagokien balorizazioak bidalketako estatuan hondakinak balorizatzeko dagoen legeria betetzen ez badu. Bitartean, Batzordeak aurrera jarraitu beharko du nahi ez diren hondakinak estatu kide berrietara eramateko egon daitezkeen mugimenduak gainbegiratzen, eta, hala behar izanez gero, proposamen egokiak aurkeztu beharko ditu egoera horiei aurre egiteko.
- (23) Informaziorako sarbideari, erabakiak hartzeko jendearen parte-hartzeari eta ingurumen-arloko justiziarako sarbideari buruzko 1998ko ekainaren 25eko CEPE/NU Hitzarmenaren arabera (Aarhus-ko Hitzarmenaren arabera), estatu kideei eskatuko zaie agintari eskudunek jendearen esku jar dezatela hondakinak lekualdatzeko jakinarazpenei buruzko informazioa, bide egokiak erabiliz, betiere, informazio hori isilpekoa ez bada estatuko edo Erkidegoko legeriaren arabera.
- (24) Ezinbestez ezarri behar da aurreikusitako moduan ezin lekualdatu daitezkeen hondakinak nahitaez itzuli beharko direla atzera bidalketako estatura, edo, bestela, ordezko bideak baliatuz balorizatu beharko direla.
- (25) Era berean, legekoa ez den lekualdaketen erantzukizuna duen pertsonak atzera itzuli beharko ditu hondakin horiek nahitaez, edo, bestela, behar diren ordezko neurriak hartu beharko ditu hondakin horiek balorizatzeko edota ezabatzeko. Horrela jokatu ezean,

¹ 114 EO L, 2006-04-27, 9. or.

² 257 EO L, 1996-10-10ekoa, 26 or. Azken batean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 166/2006 [EE] Erregelamenduak (33 EO L, 2006-02-04koa, 1. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

- bidalketako edo helmugako agintari eskudunek esku hartu beharko dute –batak edo besteak, kasuaren arabera–.
- (26) Tartean dauden estatuetako ingurumena babeste aldera, ondo argitu behar dira Basileako Hitzarmenari jarraiki ezarritako debekuaren mugak. Debeku hori, Europako Merkataritza Askeko Elkarteko (EFTAko) kidea ez den hirugarren estatu batean hondakinak ezabatzeko, Erkidegoan esportatzen diren hondakinei dagokie.
- (27) Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuak Erkidegoaren barruan hondakinak lekualdatzeko ezarri diren kontrol-prozedurak onartu ahal izango dituzte.
- (28) Era berean, tartean dauden estatuetako ingurumena babeste aldera, ondo argitu behar dira, Basileako Hitzarmenari jarraiki ezarritako ELGEren Erabakia aplikatzen ez den estatu batean hondakinak balorizatzeko, hondakin arriskutsuak esportatzeko debekuak dituen mugak. Bereziki, nahitaez argitu behar da debekuak barne hartzen dituen hondakinen zerrenda, eta, era berean bermatu behar da Basileako Hitzarmenaren II. eranskinean zerrendatuta dauden hondakinak barne hatuko direla, zehazki, etxeko hondakinak eta etxeko hondakinak erraustean sortutako hondakinak.
- (29) Mekanismo bereziak eduki behar dira ELGEren Erabakia bete behar ez duten estatuetan balorizatu nahi diren eta arriskutsuak ez diren hondakinak esportatzeko, eta, horrez gain, tresna horiek aurrerago sinplifikatuko direla aurreikusitako behar da.
- (30) Estatu esportatzailea Basileako Hitzarmeneko kidea bada, baimena eman behar da ezabatu nahi diren hondakinak Erkidegoan inportatzeko. Estatu esportatzaileak ELGEren Erabakia bete behar badu edo Basileako Hitzarmeneko kidea bada, baimena eman behar da balorizatu nahi diren hondakinak Erkidegoan inportatzeko. Alabaina, gainerako kasuetan, inportazioak soilik baimenduko dira estatu esportatzaileak bi aldeko edo alde askotako akordio edo sistema bat bete behar badu eta akordio edo sistema hori bat badator Erkidegoko Zuzenbidearekin eta Basileako Hitzarmenaren 11. artikuluekin. Ez da horrela jokatu, berriz, hori ezinezkoa denean, krisialdietan, gerretan edota bakea berrezarri edo bakeari eutsi behar zaion unetan.
- (31) Erregelamendu hau ezartzean, nazioarteko itsas Zuzenbidea bete beharko da.
- (32) Erregelamendu hau ondo jaso beharko ditu itsasoz haraindiko estatuetara eta lurraldeetara eta estatu eta lurralde horietatik egiten diren esportazioei eta inportazioei buruzko arauak, Europako Kontseiluaren 2001ko azaroaren 27ko 2001/822/EE Erabakiak ezarritako eran, erabaki hori Europar Batasunaren itsasoz haraindiko estatuetako eta lurraldeetako elkarteari buruzkoa baita («Itsasoz Haraindiko Herrialde eta Lurraldeen Elkartearen Erabakiari buruzkoa») ⁽¹⁾.
- (33) Beharrezkoak diren urratsak egin beharko dira ondo bermatu ahal izateko, 2006/12/EE Zuzentarauari eta hondakinei buruzko Erkidegoko gainerako legeriei jarraiki, Erkidegoaren barruan lekualdatzen diren hondakinak eta, orobat, Erkidegoan inportatzen diren hondakinak era egokian kudeatuko direla, hartara, lekualdatzen diren bitartean eta, halaber, hondakin horiek helmugako estatuan balorizatzean edo ezabatzean, inolako arriskurik egon ez dadin gizakien osasunerako, eta jarduera horiek guztiak egin daitezkeen ingurumenerako kaltegarriak izan daitezkeen prozesuak edo metodoak erabili gabe. Bestalde, debekaturik ez dauden Erkidegoko esportazioei dagokienez, ahaleginak egin beharko dira ondo bermatu ahal izateko hondakina ingurumen-aldetik era egokian kudeatuko dela, hala lekualdatzen den bitartean, nola helmugako hirugarren estatuan hondakin hori balorizatzen edo ezabatzen denean. Hondakinak hartuko dituen instalazioak gizakien osasuna eta ingurumena babesteko arau jakin batzuk bete beharko ditu; eta arau horiek, oro har, Erkidegoko legerian ezarrita dauden arauen baliokideak izango dira. Lotesleak ez diren zuzentarauen zerrenda bat prestatu beharko da, hartara, ingurumen-aldetik egokia den kudeaketa egiteko orientabidea bilatu ahal izateko.
- (34) Estatu kideek Erregelamendu honen aplikazioari buruzko informazioa eman beharko diote Batzordeari, hala Basileako Hitzarmenaren Idazkaritzari emango dizkioten txostenen bidez, nola galdetegi berezi bat betez.
- (35) Itsasontziak era seguruan eta ingurumena zainduz desegingo direla bermatu behar da, gizakien osasuna eta ingurumena babeste aldera. Gainera, nabarmendu behar da itsasontzi bat hondakin bihur daitekeela, Basileako Hitzarmenaren 2. artikuluan zehaztuta dagoenaren arabera, baina, aldi berean, itsasontzizat har daitekeela, nazioarteko beste xedapen batzuei jarraiki. Ondo gogoratu behar da hainbat agentzien arteko lankidetzak eskatzen duten ekintza batzuk egiten ari direla une honetan, mundu-mailako betekizun lotesleak finkatzeko, eta, azken batean, itsasontziak desegiteko arazoa modu eraginkorrean eta egokian konpondu ahal izateko; hona hemen agente horiek: Lanaren Nazioarteko Erakundea (LNE), Nazioarteko Itsas Erakundea (NIE) eta Basileako Hitzarmenaren Idazkaritza.
- (36) Hondakinen garraioa kontrolatzeko nazioarteko lankidetzak eraginkorra oso lagungarria izango da hondakin arriskutsuen lekualdaketak behar

¹ 314 EO L, 2001-11-30, 1. or

bezala kontrolatuko direla bermatzeko. Nahitaez sustatu behar dira informazioaren trukea, erantzukizun partekatua, eta lankidetzarako ahaleginak, hala Erkidegoaren eta bere estatu kideen artekoak, nola hirugarren estatuekin egiten direnak, hartara, hondakinak era egokian kudeatu ahal izateko.

(37) Batzordeak Erregelamendu honen eranskin batzuk onartu behar ditu, 2006/12/EE Zuzentarauak 18. artikularen 3. paragrafoan jasotzen duen prozedura betez. Halaber, prozedura hori ezarri beharko da eranskinak aurrerapen zientifikoari eta teknikoari jarraiki aldatzeko, eta Erkidegoko legeria egokian edo ELGEren Erabakiari, Basileako Hitzarmenari, edota egokiak izan daitezkeen nazioarteko beste hitzarmen edo akordio batzuei dagokienez izan diren aldaketak sartzeko.

(38) Jakinarazpenaren eta mugimenduaren agiriak betetzeko jarraibideak prestatzean, IC eranskinean sartzeko, Batzordeak, ELGEren Erabakia eta Basileako Hitzarmena aintzat hartuta, ondo zehaztu beharko du, besteak beste, jakinarazpenaren eta mugimenduaren agiriak, ahal dela, bi orri izan beharko dituztela, eta, horrez gain, ondo zehaztu behar du IA eta IB eranskinetako jakinarazpenaren eta mugimenduaren agiriak betetzeko egutegi egokia, betiere, II. eranskina kontuan izanik. Bestalde, ELGEren Erabakiko edo Basileako Hitzarmeneko eta Erregelamendu honetako terminologia bat ez datozenean, betekizun zehatzak ondo argitu beharko dira.

(39) IIIA eranskinari gaineratu behar zaizkion hondakinen nahasketak aztertzean, besteak beste, honako informazio hau hartuko da kontuan: hondakinaren ezaugarriak, hala nola, hondakin arriskutsuak izan daitezkeen, kutsatzeko eduki dezaketen ahalmena eta egoera fisikoa; kudeaketari buruzko kontuak, esaterako, hondakina balorizatzeko gaitasun teknologikoa, balorizatzeko jarduera horrek ingurumen-aldetik izan ditzakeen abantailak, eta hondakina ingurumen-aldetik zuzen kudeatzeko lana kaltetu ote daitekeen. Batzordeak ahalik eta arinen prestatu beharko du eranskin hori, Erregelamendu hau indarrean sartu aurretik; eta erabat bukatu beharko du Erregelamendua indarrean sartu den eguna igaro, eta, gehien jota, hurrengo sei hilabeteko epean.

(40) Era berean, Batzordeak neurri gehigarriak hartu beharko ditu Erregelamendu hau aplikatzeko, 2006/12/EE Zuzentarauak 18. artikularen 3. paragrafoan jaso duen prozedurarekin bat etorrira. Neurri horien artean, fidantza edo aseguru baliokidea kalkulatzeko metodo bat egongo da; eta Batzordeak hori guztia bukatu beharko du, ahal dela, Erregelamendu hau ezartzen hasteko eguna iritsi aurretik.

(41) Egokia da Erregelamendu hau betearazteko nahitaezkoak diren neurriak onartzea,

Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakia –Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenak erabiltzeko prozedurak ezartzen dituen– betez ⁽¹⁾.

(42) Estatu kideek ezin dutenez erregelamendu honen helburua behar bezala bete –hau da, ezin dutenez ondo bermatu hondakinak lekualdatzean ingurumena babestuko dela–, eta, bestalde, helburu horrek duen tamaina eta ondorioak ikusita, Erkidegoaren mailan hobeto bete ahal izango denez, Erkidegoak neurri berriak har ditzake, Tratatuaren 5. artikuluan jasota dagoen subsidiariotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan jasota dagoen heinekotasun-printzipioaren arabera, Erregelamendu honek ez du helburu hori lortzeko beharrezkoa dena gainditzen.

HONAKO ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

I. TITULUA

APLIKAZIO-EREMUA ETA DEFINIZIOAK

1. artikulua

Aplikazio-eremua

1. Erregelamendu honek hondakinak lekualdatzeko prozedurak eta kontrol-araubideak ezartzen ditu, jatorria, helmuga, ibilbidea, lekualdatzen den hondakin-mota eta hondakinari helmugan ezarriko zaion tratamendu-mota aintzat hartuta.

2. Erregelamendu hau hondakinak lekualdatzean ezarriko da, honako kasu hauetan:

- Estatu kideen artean, Erkidegoaren barnean, edo hirugarren estatuetatik igarota.
- Erkidegoak hirugarren estatuetatik egindako inportazioetan.
- Erkidegoak hirugarren estatuetera egindako esportazioetan.
- Erkidegotik igarotzean, hondakinak hirugarren estatu batetik beste batera eramaten direnean.

3. Honako hauek Erregelamendu honen aplikazio-eremutik kanpo utziko dira:

- Itsasontzien eta itsasaldekoak ez diren plataformen ohiko funtzionamenduan sortutako hondakinak lurrera deskargatzea, ur zikinak eta hondakinak barne hartuta, betiere, hondakin horiek nahitaez bete behar badituzte itsasontziek sorrarazitako kutsadurari aurrea hartzeko 1973. urteko Nazioarteko Hitzarmenak –haren gaineko 1978ko Protokoloak (Marpol 73/78) aldarazi

¹ 184 EO L, 1999-07-17, 23. or

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- zuenak– eta, orobat, lotesleak diren nazioarteko beste tresna batzuek ezarri dituzten betekizunak.
- b) Ibilgailuen, trenen, aireontzien eta itsasontzien barruan sortzen diren hondakinak, hondakin horiek baloratzeko edo ezabatzeko deskargatzen diren arte.
- c) Hondakin erradiaktiboen lekualdaketak, Kontseiluaren 1992ko otsailaren 3ko 92/3/Euratom Zuzentarauaren 2. artikuluan azalduta dagoen bezala; zuzentaru hori estatu kideen arteko lekualdaketak eta Erkidegotik kanpo datozen edo kanpora doazen hondakin erradiaktiboak zaintzeari eta kontrolatzeari buruzkoa da ⁽¹⁾.
- d) 1774/2002 (EE) Erregelamenduaren arabera onarpen-eskakizunak bete behar dituzten lekualdaketak.
- e) 2006/12/EE Zuzentarauak 2. artikuluan 1. paragrafoko b) idatz-zatiko ii), iv) eta v) puntuetan aipatzen dituen hondakinen lekualdaketak, betiere, antzeko xedapenak dituen Erkidegoko beste araudi baten bidez araututa badaude.
- f) Antartidatik atera eta Erkidegora lekualdatu nahi diren hondakinak, Antartikoko Tratatuaren ingurumena babesteko Protokoloaren xedapenak betetzen badituzte.
- g) Indar armatuek edo sorospenerako erakundeek krisialdietan edo bakea ezartzeko edo bakeari eusteko egoeretan sortzen dituzten hondakinen inportazioak Erkidegoan, betiere, hondakin horiek indar armatuek, sorospenerako erakundeek edo beren izenean aritzen direnek, zuzenean edo zeharka, helmugako estatura lekualdatzen badituzte. Hala izatekotan, aurrez, lekualdaketari eta helmugari buruzko informazioa eman beharko zaie igarotzako agintari eskudunei eta Erkidegoko helmugako agintari eskudunei.
4. Antartidatik atera eta Erkidegoaren barruan ez dauden estatuetara lekualdatzen diren hondakinak eta Erkidegotik igarotzen ari diren hondakinak 36. eta 49. artikulua bete beharko dituzte.
5. Estatu kide baten barruan egiten diren hondakinen lekualdaketek 33. artikulua baizik ez dute bete beharko.
- 2. artikulua*
- Definizioak**
- Erregelamendu honi dagokionez, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:
- 1) «hondakinak»: 2006/12/EE Zuzentarauak 1. artikuluan 1. paragrafoko a) idatz-zatian ezartzen duen definizioa betetzen dutenak.
- 2) «hondakin arriskutsuak»: Kontseiluaren 1991eko abenduaren 12ko 91/689/EE Zuzentarauak – hondakin arriskutsuei buruzkoa denak– 1. artikuluan 4. paragrafoan ezartzen duen definizioa betetzen dutenak⁽²⁾
- 3) «hondakinen nahasketa»: nahita edo nahi gabe bi hondakin desberdin edo gehiago nahastuz egindako nahasketaren bidez lortzen diren hondakinak dira, betiere, III, IIIB, IV eta IVA eranskinetan kategoriatan berezirik ez badago nahasketa horretarako. Ez da hondakinen nahasketatzat jotzen bi hondakin edo gehiago leku batetik bestera bananduta eramatea.
- 4) «ezabatzea»: 2006/12/EE Zuzentarauak 1. artikuluan 1. paragrafoko e) idatz-zatian ezartzen duen definizioa betetzen duena.
- 5) «erdizka ezabatzea»: D13tik D15era bitarteko ezabatze-jarduerak, 2006/12/EE Zuzentarauak IIA eranskinean ezartzen duen definizioari jarraiki.
- 6) «balorizatzea»: 2006/12/EE Zuzentarauak 1. artikuluan 1. paragrafoko f) idatz-zatian ezartzen duen definizioa betetzen duena.
- 7) «erdizka balorizatzea»: R12 eta R13 ezabatze-jarduerak, 2006/12/EE Zuzentarauak IIB eranskinean ezartzen duen definizioari jarraiki.
- 8) «ingurumen-aldetik egokia den kudeaketa»: ahal diren neurri guztiak hartzea hondakinak era egokian kudeatuko direla bermatzeko, hau da, gizakien osasuna eta ingurumena hondakin horiek izan ditzaketan ondorio txarretatik babestuko direla bermatzeko.
- 9) «ekoizlea»: egiten duen jardueraren bidez hondakinak ekoizten dituen edozein pertsona («hasierako ekoizlea»), edo hondakina aurretiaz tratatzeko edo nahasteko jarduerak edota bestelako jarduerak egiten dituen beste edozein pertsona, betiere, jarduera horiek eginez, hondakinaren izaera edo eraketa aldatzen badu («ekoizle berria»), eta 2006/12/EE Zuzentarauak 1. artikuluan 1. paragrafoko b) idatz-zatian ematen duen definizioa betetzen badu.
- 10) «edukitzaila»: hondakinen ekoizlea edo hondakinak aldean dituen pertsona fisikoa edo juridikoa, betiere, 2006/12/EE Zuzentarauak 1. artikuluan 1. paragrafoko c) idatz-zatian ematen duen definizioa betetzen badu.
- 11) «biltzaila»: hondakinak biltzen dituen pertsona, 2006/12/EE Zuzentarauak 1. artikuluan 1. paragrafoko g) idatz-zatian ezartzen duen definizioaren arabera;

¹ 35 EO L, 1992-02-12, 24. or

² 377 EO L, 1991-12-31, 20. or. Azken buruan, 94/31 Erregelamenduak [EE] (168 EO L, 1994-07-02, 28. or.) aldatu zuen Zuzentaruak.

- 12) «tratularia»: hondakinak erosteko eta gero saltzeko jardueretan zeregin nagusia betetzen duen pertsona, hondakinez fisikoki jabetzen ez diren tratulariak barne hartuta; era berean, hitz honek 2006/12/EE Zuzentarauak 12. artikuluan definitzen dituen tratulariak hartzen ditu barne.
- 13) «agentea»: hirugarrenek hala eskatu dutelako hondakinak baloritzatzea edo ezabatzea xedatzen duen pertsona, hondakinez fisikoki jabetzen ez diren agenteak barne hartuta, betiere, 2006/12/EE Zuzentarauak 12. artikuluan ezartzen duenari jarraiki.
- 14) «jasotzailea»: hondakinak halako estatura bidaliko badira balorizatu edo ezabatzeko, estatu horretako jurisdikzioaren menpean dagoen pertsona edo enpresa.
- 15) «jakinarazlea»:
- a) lekualdatzen den hondakinaren abiaburua estatu kide bat bada, estatu kide horren jurisdikziopean dagoen eta hondakinak lekualdatu edo lekuz aldarazi nahi dituen pertsona fisikoa edo juridikoa, eta horren berri jakinarazi behar duena. Jakinarazlea ondoko zerrendako pertsona edo organoetako bat da, zerrendan ezarritako hurrenkeraren arabera hautatua:
 - i. Hasierako ekoizlea, edo
 - ii. Ekoizle baimendu berria, hondakina lekualdatu aurretik jarduerak egiten dituen, edo
 - iii. Jasotzaile baimendu bat, jatorri desberdinetakoak baina mota berekoak diren hondakinen kopuru txikietatik abiatuta lekualdaketa bateratu duena, jakinaraziko den toki bakar batetik horri ekiteko.
 - iv. Tratulari erregistratua, i), ii) eta iii) puntuetan aipatzen diren hasierako ekoizlearen, ekoizle berriaren edo baimendutako biltzailearen idatzizko baimena jaso badu haien izenean jakinarazle gisa jarduteko.
 - v. Agente erregistratu bat, i), ii) eta iii) puntuetan aipatzen diren hasierako ekoizlearen, ekoizle berriaren edo baimendutako biltzailearen idatzizko baimena jaso badu haien izenean jakinarazle gisa jarduteko.
 - vi. Edukitzailea, i), ii), iii), iv) eta v) puntuetan aipatzen diren pertsona guztiak ezezagunak badira edo kaudimenik ez badute.
 - b) Erkidegoan helmuga duen inportazio bat edo estatu kide batean sortu ez diren hondakinak Erkidegotik igarotzeko mugimendu bat baldin bada, pertsona fisiko edo juridiko hauek nahitaez bete beharko dituzte hondakinak lekualdatu edo lekuz aldarazi nahi dituen edo lekuz aldarazi dituen estatuko jurisdikzioa:
 - i. Bidalketa egin duen estatuko legeek izendatzen duten pertsona; eta, horrelakorik egon ezik,
 - ii. Esportazioa egiten den unean hondakinen edukitzaile dena.
- 16) «Basileako Hitzarmena»: 1989. urteko martxoaren 22ko Hitzarmena, hondakin arriskutsuak mugaz haraindi lekualdatzeko egiten diren mugimenduak kontrolatzeari eta hondakinak ezabatzeari buruzkoa dena.
- 17) «ELGEren Erabakia»: ELGEren Kontseiluaren C(2001) 107 azken Erabakia, balorizatzeako jarduerak egiteko mugaz haraindi lekualdatzen diren hondakinak kontrolatzeari buruzko C (92) 39 azken Erabakia berrikusten duena.
- 18) «agintari eskuduna»:
- a) Estatu kide bat baldin bada, 53. artikulua erekin bat etorrira estatu kide horrek hautatu duen organoa izango da, edo, bestela,
 - b) Estatu kide bat ez bada baina Basileako Hitzarmenean sartuta badago, 5. artikulua erekin bat etorrira estatu horrek Hitzarmenari begira agintari eskuduna izan dadin hautatu duen organoa izango da, edo, bestela,
 - c) Goiko a) edo b) idatz-zatiak betetzen ez dituen estatu bat bada, estatu edo eskualde horrek agintari eskuduna izan dadin hautatu duen organoa izango da; horrelakorik hautatu ez bada, berriz, estatu edo eskualde horretako

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- agintari arautzailea izango da, zehazki, balorizatzeko edo ezabatzeko lekualdatzen diren edota igarotzan dauden hondakinen gainean jurisdikzioa duen agintaria.
- 19) «bidalketako agintari eskuduna»: Hondakinen lekualdaketa abiatuko den gunean eskumena duen agintaria.
- 20) «helmugako agintari eskuduna»: hondakinen lekualdaketa eramango den guneko agintari eskuduna, edota, beste estatu bateko eskumenaren mende ez dagoen gune batean balorizatu edo ezabatu ondoren, hondakinek zamatzen diren guneko agintari eskuduna.
- 21) «igarotzeko agintari eskuduna»: hondakinek igaro edo igaroko duten estatuan eskumena duen agintaria, bidalketako eta helmugako agintari eskudunak alde batera utzita.
- 22) «bidalketako estatua»: hondakinen lekualdaketa abiatuko den estatua.
- 23) «helmugako estatua»: hondakinek eramango diren estatua, dela balorizatzeko edo ezabatzeko, dela beste estatu baten jurisdikziopean ez dagoen gune batean balorizatu edo ezabatu aurretik zamatzeko.
- 24) «igarotzeko estatua»: bidalketako edo helmugako estatua ez den eta hondakinek lekualdatzeko zeharkatu behar den edozein estatu.
- 25) «estatu baten jurisdikziopean dagoen gunea»: estatu batek administrazioko eta arazko erantzukizunaren menpean duen lur edo itsas aldea, gizakiaren osasuna edo ingurumena babesteko nazioarteko Zuzenbidearekin bat etorritako.
- 26) «itsasoz haraindiko estatuak eta lurraldeak»: 2001/822/EE Erabakiaren IA eranskinean aipatutako estatuak eta lurraldeak.
- 27) «esportazioko aduanaren bulegoa»: Europako Kontseiluaren 1992ko urriaren 12ko 2913/92 (EEE) Erregelamendua –Erkidegoko aduanako kodea onesten duenak– 161. artikuluan 5. paragrafoan ezartzen duen definizioarekin bat datorrena ⁽¹⁾.
- 28) «Erkidegoaren irteerako aduana-bulegoa»: Europako Kontseiluaren 1993ko uztailaren 2ko 2454/93 (EEE) Erregelamendua –Erkidegoko aduanako kodea ezartzen duen 2913/92 (EEE) Erregelamendua aplikatzeko xedapen jakin batzuk finkatzen dituenak– 793. artikuluan 2. paragrafoan ezartzen duen definizioarekin bat datorrena ⁽²⁾.
- 29) «Erkidegoaren sarrerako aduana-bulegoa»: Erkidegoko aduana-lurraldean sartutako hondakinek eramaten diren aduana-bulegoa, 2913/92 (EEE) Erregelamendua 38. artikuluan 1. paragrafoan jarritakoaren arabera.
- 30) «inportazioa»: Erkidegoan sartutako hondakin guztiak, Erkidegotik igarotzan dabiltzan hondakinek alde batera utzita.
- 31) «esportazioa»: hondakinek Erkidegotik kanpora ateratzea, Erkidegotik igarotzan dabiltzan hondakinek alde batera utzita.
- 32) «igarotza»: hondakinek bidalketako edo helmugako estatua ez den estatu batetik edo batzuetatik lekualdatzen direnean.
- 33) «garraioa»: hondakinek errepidetik edo trenbidetik garraiatzea, edo airetik, itsasotik edo lurretik.
- 34) «lekualdaketa»: hondakinek balorizatzeko edo ezabatzeko egiten den edo egingo den garraioa; hona hemen kasuak:
- a) Bi estaturen artean egiten dena.
 - b) Estatu baten eta uraz haraindiko estaturen eta lurraldeen artean, edota lehenbiziko estatuaren babespean dauden aldean artean egiten dena.
 - c) Estatu baten eta, nazioarteko Zuzenbideari jarraiki, estatu batekoa ez den edozein lurralderen artean egiten dena.
 - d) Estatu baten eta Antartidaren artean egiten dena.
 - e) Estatu batetik atera, eta lehen adierazitako gune baten barrena egiten dena.
 - f) Goian adierazitako alderen bat zeharkatuz estatu baten barnean egiten dena, betiere, lekualdaketa estatu berean hasten eta bukatzen bada.
 - g) Estatu baten jurisdikziopean ez dagoen gune geografiko batetik ateratzen dena, estatu batera iristeko.
- 35) «legezkoa ez den lekualdaketa»: hondakinek garraiatzea honako baldintza hauetan:
- a) Erregelamendua honen arabera tartean dauden agintari eskudun guztiei jakinarazpena egin gabe.

¹ 302 EO L, 1992-10-19koa, 1 or. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 648/2005 [EE] Erregelamendua (117 EO L, 2005-05-04koa, 13. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

² 253 EO L, 1993-10-11koa, 1 or. Azken batean, 215/2006 (EE) Erregelamendua (38 EO L, 2006-02-09koa, 11. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

- b) Erregelamendu honen arabera tartean dauden agintari eskudun guztien baimena izan gabe.
 - c) Tartean dauden agintari eskudunen baimena izanda, baina baimena faltsifikazioa eginez, gezurra esanez edo iruzurra eginez lortu ondoren.
 - d) Lekualdaketa jakinarazpenaren edo mugimenduaren agirietan berariaz zehaztu ez den era batean egiten denean.
 - e) Egin beharreko balorizazioaren edo ezabaketaren ondorioz erkidegoko edo nazioarteko araudia hausten denean.
 - f) 34., 36., 39., 40., 41. eta 43. artikulua xedatutakoaz bestela egiten denean.
 - g) Lekualdaketa onduz, 3. artikuluan 2. eta 4. paragrafoetan aipatzen diren hondakinen lekualdaketei dagokienez, ondokoa gertatzen denean:
 - i. Hondakinak III, IIIA edo IIIB eranskinetan agertzen ez direla egiaztatzen dela.
 - ii. Hirugarren artikulua 4. paragrafoan ezarritakoa ez dela bete.
 - iii. Lekualdaketa VII. eranskinen agirian zehaztuta ez dagoen era batean egiten dela.
 - iii) III, IIIB, IV edo IVA eranskinetako kategoria berezi batean sailkatuta ez dauden hondakinak.
 - iv) III, IIIB, IV edo IVA eranskinetako kategoria berezi batean sailkatuta ez dauden hondakinen nahasketak, betiere, IIIA eranskinen jasota ez badaude.
2. Balorizatu nahi diren hondakin batzuk lekualdatzean, hondakinen kopurua 20 kg-tik gorakoa bada, 18. artikuluan ezarritako informazio orokorreko eskakizunak bete beharko dira; hona hemen hondakinak zein diren:
- a) III edo IIIB eranskinen aipatutako hondakinak.
 - b) III. eranskinen kategoria berezi batean sailkatu ez diren nahasketak, betiere, nahasketa horiek III. eranskinen adierazitako bi hondakinenak edo gehiagorenak badira, eta nahasketa horien osaera kaltegarria ez bada ingurumen-aldetik zuzena izango den balorizazioa egin ahal izateko, eta, orobat, nahasketak IIIA eranskinen sartuta badaude, 58. artikuluari jarraiki.
3. III. eranskinen aipatutako hondakinei, salbuespenezko kasuetan, xedapen egokiak aplikatuko zaizkie, IV. eranskinen sartuta egon izan balira bezala, zehazki, 91/689/EEE Zuzentarauaren III. eranskinen adierazitako ezaugarri arriskutsuren bat dutenean. Hondakin horiek 58. artikuluan ezarritako tratamendua izango dute.

II. TITULUA

HONDAKINAK ERKIDEGOAREN BARNEAN LEKUALDATZEA, HIRUGARREN ESTATUETATIK IGAROTA EDO HAIETATIK IGARO GABE

3. artikulua

Prozedura-esparru orokorra

1. Hondakin batzuk lekualdatzean, titulu honetako xedapenetan ezarritako aurretiazko idatzizko jakinarazpenaren eta baimenaren prozedura bete beharko da; hona hemen kasuak:
- a) Hondakinak ezabatzeko lekualdatzen badira:
 - b) Hondakin guztiak.
 - c) Hondakinak balorizatzeko garraiatzen badira:
 - i) IV. eranskinen aipatutako hondakinak, besteak beste, Basileako Hitzarmenak II. eta VIII. eranskinetan adierazitako hondakinak barne hartuta.
 - ii) IVA eranskinen zerrendatutako hondakinak.

4. Ezaugarri fisikoak edo kimikoak ebaluatze aldera edota balorizazio- edota ezabatze-jarduerak egiteko egokiak ote diren zehazte aldera laborategiko analisiak egiteko berariaz bideratzen diren hondakinak lekualdatzean, ez da 1. paragrafoan azaldutako aurretiazko idatzizko jakinarazpenaren eta baimenaren prozedura bete beharko. Horren ordez, 18. artikuluan jasotako prozedurako eskakizunak bete beharko dira. Laborategiko analisiak egiteko berariaz bideratzen direnean izan ezik, hondakin horien kopurua zehaztuko da kasu bakoitzean analisis egiteko behar den gutxieneko kopurua aintzat hartuta, baina inoiz ere ez du 25 kg-tik gora joko.
5. Etxe partikularretan jasotako udal-hondakin nahastuak lekualdatzean (20 03 01 hondakina), beste ekoizle batzuei jasotako mota horretako hondakinak barne hartuta, eta hondakinok balorizatzeko edo ezabatzeko instalazioetara eramatean, Erregelamendu honen arabera, ezabatzen diren hondakinek bete beharreko xedapen berberak bete beharko dira.

I. KAPITULUA

Aurretiazko idatzizko jakinarazpena eta baimena

4. artikulua

Jakinarazpena

Hirugarren artikuluko 1. paragrafoaren a) edo b) idatz-zatiei jarraiki hondakinak lekualdatu nahi dituen jakinarazleak aurretiazko idatzizko jakinarazpena aurkeztu beharko dio bidalketako agintariari eskudunari, eta, jakinarazpen orokorra eginez gero, 13. artikuluan xedatutakoa bete beharko luke.

Jakinarazpen bat egiten denean, eskakizun hauek bete beharko dira:

1) Jakinarazpenaren eta mugimenduaren agiriak. Jakinarazpena egiteko, ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) IA eranskinen agertzen den jakinarazpenaren agiria.

b) IB eranskinen agertzen den mugimenduaren agiria.

Jakinarazpena egitean, jakinarazleak jakinarazpenaren agiria eta –hala behar denean–, mugimenduaren agiria bete beharko ditu.

Jakinarazlea hasierako ekoizlea ez baldin bada, 2. artikuluko 15. puntuko a) idatz-zatiaren i) tartean ezarritakoaren arabera, orduan, jakinarazleak ondo begiratu beharko du IA eranskinen jasota dagoen jakinarazpenaren agirian ekoizle horren sinadura edota 2. artikuluko 15. puntuko a) idatz-zatiaren ii) edo iii) tarteetan adierazitako pertsona baten sinadura egon dadin, hori bideragarria bada.

Bidalketako agintari eskudunak emango dizkio jakinarazpenaren eta mugimenduaren agiriak jakinarazleari.

2) Jakinarazpenaren eta mugimenduaren agiriekin batera aurkeztu beharko diren agiriak eta informazioa

Jakinarazleak II. eranskinaren 1. zatian adierazita dauden agiriak eta informazioa sartuko edo erantsiko ditu jakinarazpenaren agirian. Orobat, jakinarazleak II. eranskinaren 2. zatian adierazita dauden agiriak eta informazioa sartuko edo erantsiko ditu mugimenduaren agirian, ahal dela, jakinarazpena egiten den unean bertan.

Bidalketako agintari eskudunak ondo ziurtatzen duenean jakinarazpenaren eta mugimenduaren agiriak lehen paragrafoan adierazitakoari jarraiki bete direla, orduan, jakinarazpena behar bezala egin dela joko da.

3) Informazio eta agiri gehigarriak

Tartean dagoen agintari eskudunen batek eskaera egiten badio, jakinarazleak informazio eta agiri gehigarriak aurkeztu beharko ditu. II. eranskinaren 3. zatian, eskatu ahal izango diren informazio eta agiri gehigarrien zerrenda bat dago jasota.

Jakinarazpena behar bezala egin dela joko da helmugako agintari eskudunak ondo ziurtatu duenean jakinarazpenaren eta mugimenduaren agiriak bete direla, jakinarazleak II. eranskinaren 1. eta 2. zatian aipatutako informazioa eta agiriak aurkeztu dituela, eta, orobat, paragrafo honi jarraiki eta II. eranskinaren 3. zatian jasotako zerrendari jarraiki eskatzen zaizkion informazioa eta agiri osagarriak aurkeztu dituela.

4) Jakinarazlearen eta jasotzailearen arteko kontratu bat egitea

Jakinarazleak 5. artikuluan deskribatutako kontratuaren antzeko kontratu bat egin beharko du jasotzailearekin, jakinarazpenean aipatutako hondakinak balorizatzeko edo ezabatuzeko.

Jakinarazpena egiteko unean, kontratu hori badagoela egiaztatu beharko zaie tartean dauden agintari eskudunei, edo, bestela, kontratua badagoela dioen adierazpen bat aurkeztu beharko zaie, IA eranskinari jarraiki. Agintari eskudunak hala eskatzen baldin badio, jakinarazleak edo jasotzaileak kontratuaren kopia bat aurkeztuko dute, edo, bestela, tartean dagoen agintari eskudunaren iritziz egokia den kontratu-egiaztagiri bat.

5) Fidantza edo aseguru baliokidea eratzea

Fidantza edo aseguru baliokide bat eratu beharko da 6. artikuluari jarraiki. Jakinarazleak adierazpen bat egingo du ondorio horretarako, eta, hartara, dagokion zatia beteko du IA eranskinen agertzen den jakinarazpenaren agirian.

Fidantza edo aseguru baliokidea (edo, agintari eskudunak hala baimentzen badu, fidantza edo aseguru horren egiaztagiriak edo horiek badaudela ziurtatzen duen adierazpena) jakinarazpenaren agiriarekin batera aurkeztuko dira jakinarazpena egiteko unean, edo, bestela, agintari eskudunak estatuko legeriari jarraiki hala baimentzen badu, hondakinak lekualdatzen hasten diren unean bertan.

6) Jakinarazpenaren estaldura

Jakinarazpenak barne hartu beharko du hondakinak bidalketako hasierako lekutik eramateko lekualdaketa osoa, eta hondakin horiek erdizka edo behin betiko ezabatzeko edota balorizatzeko jarduerak ere aintzat hartu beharko ditu.

Geroago erdizkako edo behin betiko operazioen bat eginez gero lehenbiziko helmuga-estatua ez den leku batean, behin betiko operazioa eta helmuga jakinarazpenean zehaztu beharko dira, eta 15. artikuluko f) idatz-zatian xedatutakoa ezarriko da.

Jakinarazpen bakoitzak hondakinak identifikatzeko kode bakarra izan beharko du, salbuespen hauek izan ezik:

- a) III, IIIB, IV edo IVA eranskinetan errubrika bakar batean sailkatuta ez dauden hondakinak, horrelako kasuetan hondakin bakar bat zehaztu beharko baita.
- b) III, IIIB, IV edo IVA eranskinetan errubrika bakar batean sailkatu ez diren hondakinen nahasketak, horrelako kasuetan, hondakinen frakzio bakoitzaren kodea garrantziaren arabera zehaztu beharko baita.

5. artikulua

Kontratua

1. Jakinarazpena behar duten hondakinen lekualdaketa guztietan, jakinarazleak eta jasotzaileak kontratu bat egin beharko dute, jakinarazpenean aipatutako hondakinak baloritzatzeko edo ezabatzeke.

2. Jakinarazpena egiten den unean egin beharko da kontratua, eta orduantxe izan beharko du eraginkorra, bai eta lekualdaketa osoan ere, 15. artikulua e) idatz-zatiaren, 16. artikulua e) idatz-zatiaren edo –hala behar denean– 15. artikulua d) idatz-zatiaren araberako ziurtagiri bat egiten den arte.

3. Kontratuan betebeharrak hau ezarri beharko da:

- a) Hondakinak lekualdatzean, ezabatzean edo balorazioa egitean aurrez finkatutakoa betetzen ez bada, edo lekualdaketa legezkoa ez bada, jakinarazleak bere gain hartu beharko du berriz hondakinen ardura, 22. artikulua eta 24. artikulua 2. paragrafoari jarraiki.
- b) Hondakinen lekualdaketa legezkoa ez bada, jasotzaileak hondakinak baloritzatzeko edo ezabatzeke ardura hartu beharko du, 24. artikulua 3. paragrafoaren arabera.
- c) Instalazioak, bestalde, ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, 16. artikulua e) idatz-zatiari jarraiki, hondakinak jakinarazpenean eta Erregelamendu honetan adierazitako baldintzak betez balorizatu edo ezabatu direla egiaztatze aldera.

4. Lekualdatutako hondakina erdizka baloritzatzeko edo ezabatzeke eraman bada, kontratuak betebeharrak gehigarri hauek eduki beharko ditu:

- a) Helmugako instalazioak ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, 15. artikulua d) eta, hala behar denean, e) idatz-zatiari jarraiki, hondakinak jakinarazpenean eta Erregelamendu honetan adierazitako

baldintzak betez balorizatu edo ezabatu direla egiaztatze aldera.

- b) Jasotzaileak, hala behar bada, jakinarazpen bat eman beharko dio hasierako bidalketa-estatuko hasierako agintari eskudunari, 15 artikulua f) idatz-zatiaren ii) puntuan finkatu duenari jarraiki.

5. Hondakinak erakunde juridiko berberaren kontrolpean dauden bi establezimenduen artean lekualdatu behar badira, kontratu horren ordez, jakinarazpenean aipatutako hondakinak baloritzatzeko edo ezabatzeke ardura hartuko duen erakundearen adierazpen bat aurkeztu ahal izango da.

6. artikulua

Fidantza

1. Jakinarazpena behar duten hondakinak lekualdatzean, fidantza edo aseguru baliokide bat eratu beharko da, eta horrek honako alderdi hauek hartu beharko ditu barne:

- a) Garraio-kostuak.
- b) Hondakinak baloritzatzeko edo ezabatzeke kostuak, bitartean egin beharreko jarduerak guztiak barne hartuta.
- c) Laurogeita hamar egunetan hondakinak biltegian izateak eragindako kostuak.

2. Fidantza edo aseguru baliokidearen helburua da sor litezkeen kostuak barne hartzea baldin eta:

- a) Hondakinak lekualdatzean, balorizatzeko edo ezabatzean, aurrez finkatutakoa bete ezin bada, 22. artikuluan adierazitako eran.
- b) Hondakinen lekualdaketa, balorizazioa edo ezabapena legezkoa ez badira, 24. artikuluan adierazitakoaren arabera.

3. Fidantza edo aseguru baliokidea jakinarazleak edo haren izenean aritzen den pertsona fisiko edo juridiko batek eratu beharko du, eta eraginkorra izan beharko du jakinarazpena egiten den unean, edo, fidantza edo aseguru baliokidea baimentzen duen agintari eskudunak horrela baimentzen baldin badu, gehien jota, hondakinak lekualdatzen hasten diren unean. Bestalde, jakinarazitako lekualdaketa ezarri beharko zaio, gehienez ere lekualdaketa ekiten zaion unean.

4. Bidalketako agintari eskudunak onetsiko ditu fidantza edo fidantzak edota aseguru

baliokideak –formularioa, idazkia eta estalduraren kopurua barne hartuta–.

Alabaina, inportazioa erkidegoan egiten denean, Erkidegoko helmugako agintari eskudunak estalduraren zenbatekoa berrikusiko du eta, hala behar denean, fidantza edo aseguru gehigarri bat onetsiko du.

5. Fidantza edo fidantzak edota aseguru baliokideak baliiodunak izango dira eta barne hartuko dituzte jakinarazitako lekualdaketak eta jakinarazitako hondakinak balorizatzeko edo ezabatzeko jarduerak.

Fidantzak edo aseguru baliokideak askatuko dira agintari eskudunak 16. artikuluan e) idatz-zatian adierazitako ziurtagiria jasotzen duenean, edo, hala behar denean, 15. artikuluko e) idatz-zatian adierazitakoa jasotzen duenean, erdizka ezabatzeko edo balorizatzeko jarduerari dagokienez.

6. Bosgarren paragrafoan xedatutakoa gorabehera, lekualdatzen diren hondakinak erdizka ezabatzeko edo balorizatzeko eramaten badira eta helmugako estatuan hondakinak balorizatzeko edo ezabatzeko jarduera gehigarri bat egiten bada, orduan, fidantza edo aseguru baliokidea askatu ahal izango da hondakinak tarteko instalaziotik ateratzen direnean eta agintari eskudunak 15. artikuluko d) idatz-zatian aipatzen duen ziurtagiria jasotzen duenean. Kasu horretan, geroago hondakinak lekualdatzen badira balorizatzeko edo ezabatzeko jarduerak egingo dituen instalazio batera, beste fidantza edo aseguru baliokide bat egin beharko da, betiere, helmugako agintari eskudunak fidantza edo aseguru baliokide hori beharrezkoa ez dela jotzen ez badu. Kasu horretan, helmugako agintari eskuduna arduratuko da legezkoa ez den lekualdaketa eginez gero sor litezkeen betebeharrak betearazteaz, edo hondakinak kentzeaz, hondakinen lekualdaketa eta geroagoko balorizazio- edo ezabatze-jarduerak ezin badira egin aurreikusita zeuden moduan.

7. Fidantza edo aseguru baliokidea onetsi duen Erkidegoaren barruko agintari eskudunak eskura izango du fidantza edo aseguru hori, eta horren funtsak erabiliko ditu, besteak beste, tartean dauden beste agintari batzuei ordaintzeko, hartara, 23. eta 25. artikuluetan xedatutakoaren ondoriozko betebeharrak betetzeko.

8. Jakinarazpen orokorra eginez gero 13. artikuluari jarraiki, jakinarazpen orokorraren zati batzuk –ez denak– barne hartzen dituen fidantza edo aseguru baliokide bat eratu ahal izango da. Kasu horietan, fidantza edo aseguru baliokidea estaldurak barne hartzen duen eta jakinarazi den lekualdaketa aplikatuko zaio, gehien jota, lekualdaketa hasten den unean aplikatu ere.

Fidantza edo aseguru baliokidea askatuko da agintari eskudunak 16. artikuluko e) idatz-zatiak aipatzen duen ziurtagiria jasotzen duenean, edo, egokia bada, 15. artikuluko e) idatz-zatiak aipatzen duen agiria jasotzen duenean, dena delako hondakinak erdizka ezabatzeko edo balorizatzeko jarduerari dagokienez. 6. paragrafoa *mutatis mutandis* aplikatuko da.

9. Estatu kideek artikuluko honi jarraiki hartzen dituzten estatuko Zuzenbideko xedapenen berri jakinaraziko diote Batzordeari.

7. artikulua

Bidalketako agintari eskudunak jakinarazpena igortzea

1. Jakinarazpena behar bezala egin ondoren, 4. artikuluko 2. puntuaren bigarren lerrokadan azaldutako moduan, bidalketako agintari eskudunak jakinarazpenaren kopia bat gordeko du eta jakinarazpena helmugako agintari eskudunari igorriko dio, kopia bana emango die igarotzako agintari eskudun guztiei, eta, jakinarazpena igorri dela adieraziko dio jakinarazleari. Hori guztia hiru egun baliioduneko epean egingo da, jakinarazpena jasotzen denetik hasita.

2. Jakinarazpena behar den moduan egin ez bada, bidalketako agintari eskudunak informazioa eta dokumentazioa eskatuko dio jakinarazleari, 4. artikuluko 2. puntuko bigarren lerrokadari jarraiki.

Hori guztia hiru egun baliioduneko epean egingo da, jakinarazpena jasotzen denetik hasita.

Kasu horietan, bidalketako agintari eskudunak hiru egun baliiodun izango ditu, eskatutako informazioa eta/edo dokumentazioa jasotzen duenetik hasita, 1. paragrafoan xedatutakoa betetzeko.

3. Jakinarazpena behar den moduan egin ondoren, 4. artikuluko 2. puntuko bigarren lerrokadan adierazitako eran, bidalketako agintari eskudunak hiru egun baliioduneko epea izango du jakinarazpena ez igortzea erabakitzeke, baldin eta 11. eta 12. artikuluei jarraiki lekualdaketa kontrako arrazoren bat badu.

Kasu horretan, berehala jakinaraziko dizkio erabaki hori eta kontrako arrazoi horiek jakinarazleari.

4. Jakinarazpena jaso eta 30 eguneko epean bidalketako agintari eskudunak jakinarazpena igortzen ez badu 1. paragrafoan ezarritakoari jarraiki, azalpen arrazoitua eman beharko dio jakinarazleari, jakinarazleak hori eskatu ondoren. Alabaina, ez da horrelakorik aplikatuko 2. paragrafoan aipatzen den informazio-eskaera bete ez bada.

8. artikulua

Tartean dauden agintari eskudunek egindako informazio- eta dokumentazio-eskaerak, eta bidalketako agintariaren hartu-agiria

1. Bidalketako agintari eskudunak jakinarazpena igorri ondoren, tartean dagoen agintari eskudunen batek irizten baldin badio informazio eta dokumentazio gehigarria behar duela, 4. artikulua 3. puntuko bigarren lerrokadan ezarritakoari jarraiki, informazio edo dokumentazio hori eskatuko dio jakinarazleari, eta eskaera horren berri jakinaraziko die gainerako agintari eskudunei. Hori guztia hiru egun balioduneko epean egingo da, jakinarazpena jasotzen denetik hasita. Kasu horietan, tartean dauden agintari eskudunek hiru egun balioduneko epea izango dute, eskatutako informazioa eta dokumentazioa jasotzen dutenetik hasita, helmugako agintari eskudunari horren berri emateko.

2. Helmugako agintari eskudunak irizten baldin badio jakinarazpena behar bezala egin dela, 4. artikulua 3. puntuko bigarren lerrokadan adierazitako moduan, hartu-agiria bidaliko dio jakinarazleari eta, era berean, kopiak bidaliko dizkie tartean dauden gainerako agintari eskudunei. Hori guztia hiru egun balioduneko epean egingo da, behar bezala betetako jakinarazpena jasotzen denetik hasita.

3. Jakinarazpena jaso eta 30 eguneko epean helmugako agintari eskudunak jakinarazpenaren hartu-agiria igortzen ez badu, 2. paragrafoan ezarritakoari jarraiki, azalpen arrazoitua eman beharko dio jakinarazleari, jakinarazleak hori eskatu ondoren.

9. artikulua

Bidalketako, helmugako edo igarotzeko agintari eskudunek emandako baimena, eta garraioa, balorazioa edo ezabapena egiteko epeak

1. Helmugako, bidalketako eta igarotzeko agintari eskudunek 30 eguneko epea izango dute, helmugako agintari eskudunak, 8. artikuluari jarraiki, hartu-agiria igortzen duenetik hasita, arrazoitutako erabaki hauetakoren bat idatziz hartzeko, jakinarazi den lekualdaketa dagokionez:

- a) Baldintzarik gabe baimentzeko.
- b) Baldintzak jarrita baimentzeko, 10. artikuluari jarraiki.
- c) Kontrako arrazoiak jartzeko, 11. eta 12. artikuluei jarraiki.

Hogeita hamar eguneko epea bukatzen bada eta epe horretan kontrako arrazoirik aurkezten ez bada, igarotzeko agintari eskudunak isilbidezko baimena eman duela joko da.

2. Helmugako, bidalketako eta, hala behar denean, igarotzeko agintari eskudunek arrazoitutako erabakia idatziz igorriko diote jakinarazleari, 1. paragrafoan aipatutako 30 eguneko epean igorri ere,

eta tartean dauden gainerako agintari eskudunei kopia bana bidaliko diete.

3. Helmugako, bidalketako eta, hala behar denean, igarotzeko agintari eskudunek idatziz paratuko dute beren baimena, eta, ondorio horretarako, jakinarazpenaren agiria edo haren kopiak zigilatuko, sinatuko eta datatuko dituzte.

4. Lekualdaketa jakin baterako idatziz emandako baimen guztiak urtebete zibil bateko epean iraugiko dira, baimena eman den egunetik hasita, edo ondoko data batetik hasita, jakinarazpenaren agirian adierazita dagoen moduan. Alabaina, xedapen hori ez da ezarriko tartean dauden agintari eskudunek epe laburrago bat finkatzen badute.

5. Aurreikusitako lekualdaketa baten isilbidezko baimena urtebete zibil bateko epean iraugiko da, 1. paragrafoan aipatutako 30 eguneko epea bukatzen denetik hasita.

6. Aurreikusitako lekualdaketa gauzatu ahal izateko, aurrez, 16. artikulua a) eta b) idatz-zatietan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira, eta, nolana ere, lekualdaketa agintari eskudunek emandako isilbidezko edo idatzizko baimenek duten balio-denbora barruan egin beharko da.

7. Hondakinak balorizatzeko edo ezabatzekeo jarduerak, aurreikusitako lekualdaketa bati dagozkionak, gehienez ere urtebete zibileko epean burutu beharko dira, instalazioak hondakinak jasotzen dituen egunetik hasita. Ez da horrela jokatu, ordea, tartean dauden agintari eskudunek epe laburragoa finkatzen badute.

8. Tartean dauden agintari eskudunek baimena indargabetuko dute honako alderdi hauen berri jaso bezain laster:

- a) Hondakinaren osaera ez datorrela bat jakinarazpenaren adierazitakoarekin.
- b) Hondakinak lekualdatzeko jarri diren baldintzak ez direla betetzen.
- c) Hondakinak ez direla balorizatzen edo ezabatzen jarduera hori egiten duen instalazioaren baimenari jarraiki.
- d) Hondakinak lekualdatu, balorizatu edo ezabatu nahi direla, edo dagoeneko lekualdatu, balorizatu edo ezabatu direla, emandako informazioan adierazi denarekin edo jakinarazpenaren eta mugimenduaren agirien eranskinetan jaso denarekin bat ez datorren modu batean.

9. Baimena kenduz gero, horren berri emango da jakinarazleari jakinarazpen ofiziala eginez, eta, orobat, tartean dauden agintari eskudun guztiei eta jasotzaileari horren kopia bana emanez.

10. artikulua

Lekualdaketa egiteko baldintzak

1. Helmugako agintari eskudunak, 8. artikuluari jarraiki, hartu-agiria igorri eta 30 eguneko epean, bidalketako, helmugako eta igarotzako agintari eskudunek baldintzak finkatu ahal izango dituzte jakinarazitako lekualdaketa baimentzeko. Baldintza horiek 11. edo 12. artikuluetan zehaztutako arrazoi batean edo batzuetan oinarritu ahal izango dira.

2. Era berean, bidalketako, helmugako eta igarotzako agintari eskudunek, 1. paragrafoan aipatutako 30 eguneko epean, beren jurisdikzioaren barruan hondakinak garraiatzean bete beharreko baldintzak finkatu ahal izango dituzte. Garraioko baldintza horiek ez dira inolaz ere zorrotzagoak izango jurisdikzio horretan egindako antzeko lekualdaketa ezarritako baldintzak baino, eta, bestalde, kontuan hartu beharko dituzte indarrean dauden akordioak, batez ere nazioarteko akordio egokiak.

3. Bestalde, bidalketako, helmugako eta igarotzako agintari eskudunek, 1. paragrafoan aipatutako 30 eguneko epean, ondoko baldintza hau finkatu ahal izango dute: fidantza edo aseguru baliokidea ezin bada ezarri, gehien jota, jakinarazitako lekualdaketa ekiten zaion unean, beren baimena ukatutzat joko da, 6. artikulua 3. paragrafoan adierazitako moduan.

4. Baldintzak ezartzen dituen agintari eskudunak idatziz adierazi beharko dizkio jakinarazleari, eta horren kopia bana eman beharko die tartean dauden agintari eskudun guztiei.

Eskumena duen agintariak jakinarazpenaren agirian sartu edo erantsi beharko ditu baldintzak.

5. Bidalketako agintari eskudunak, 1. paragrafoan aipatutako 30 eguneko epean, ondoko eskakizuna finkatu ahal izango du: hondakina jasotzen duen instalazioak sarreren, irteeren eta/edo hondakinen balantzeen eta dagozkien balorizazio- edo ezabatze-jardueren erregistroa eduki behar duela, jakinarazpenean adierazitakoari jarraiki, jakinarazpenaren balio-denboran. Erregistro horiek instalazioaren legezko arduradun batek sinatu beharko ditu, eta helmugako agintari eskudunari igorriko zaizkio, hilabeteko epean, hondakinak balorizatzeko edo ezabatzeko jakinarazitako jarduera egiten denetik hasita.

11. artikulua

Ezabatu nahi diren hondakinak lekualdatzearen kontrako arrazoiak

1. Ezabatu nahi diren hondakinen lekualdaketa jakin bati buruzko jakinarazpen bat aurkezten denean, bidalketako eta helmugako agintari eskudunek kontrako arrazoiak aurkeztu ahal izango dituzte, 8. artikuluari jarraiki, 30 eguneko epean, helmugako agintari eskudunak hartu-agiria igortzen duenetik hasita, ondoko arrazoi bat edo batzuk direla-eta, eta Tratatuarekin bat etorrira:

- a) Aurreikusitako hondakinak lekualdatzean edo ezabatzean ez direla bete hondakinak lekualdatzeko debeku osoko edo partzialeko neurriak, edo horien kontrako arrazoiak sistematikoki emateko neurriak, hau da, 2006/12/EE Zuzentarauak xedatu duenarekin bat etorrira, hurbiltasuna, balorizazioaren lehentasuna eta autosufizientzia bezalako printzipioak erkidego- eta estatu-mailan aplikatzeko onartu diren neurriak.
- b) Aurreikusitako hondakinak lekualdatzean edo ezabatzean ez direla behar bezala betetzen estatuan dauden legezko eta arauzko xedapenak –ingurumena babestekoak, orden publikoari buruzkoak, segurtasun publikoari eta osasunaren babesari dagozkionak–, estatu horretan egiten diren jardueri begira.
- c) Jakinarazleak edo jasotzaileak lehenago zigorra jaso duela legezkoak ez ziren lekualdaketa egiteagatik edo legezkoa ez zen eta ingurumenari lotuta zegoen beste edozein jarduera egiteagatik; kasu horretan, bidalketako eta helmugako agintari eskudunek errefusatu ahal izango dituzte pertsona horien parte-hartzea izanda egiten diren lekualdaketa guztiak, estatuko legeriari jarraiki.
- d) Lehenagoko lekualdaketa egitean, jakinarazleak edo instalazioak behin eta berriz hautsi dituztela 15. eta 16. artikulua.
- e) Basileako Hitzarmenak 4. artikuluko 1. paragrafoan ezarritakoari jarraiki, estatu kideak erabili nahi duela hondakin arriskutsuen inportazioa edota Hitzarmen horren II. eranskinean jasota dauden hondakinen inportazioa debekatzeko eskubidea.
- f) Aurreikusitako hondakinen lekualdaketa edo ezabapena tartean dauden estatu kideek edota Erkidegoak sinatu dituzten nazioarteko hitzarmenen ondoriozko betebeharren aurkakoak direla.
- g) Baldintza geografikoak kontuan izanik edo hondakin-mota jakin batzuetarako instalazio espezializatuak edukitzeko dagoen beharra aintzat hartuta, aurreikusitako lekualdaketa edo ezabapenak ez duela betetzen 2006/12/EE Zuzentarauak 5. eta 7. artikuluetan xedatutakoa:
 - i. Autosufizientziaren printzipioa Erkidegoan edo estatu-mailan aplikatzeko xedez.
 - ii. Instalazio espezializatuak hurbilago dagoen toki batetik iritsitako hondakinak ezabatu behar baditu eta agintari eskudunak lehentasuna eman badie hondakin horiei.

iii. Lekualdaketek hondakinak kudeatzeko planak beteko dituztela bermatze aldera.

h) Hondakinak 96/61/EE Zuzentarauak jasotzen dituen baina Zuzentaru horretako 9. artikulua 4. paragrafoan azaldutako teknika eskuragarri onenak aplikatzen ez dituen instalazioetan tratatzen direla, instalazioak duen baimenaren arabera.

i) Hondakina etxebizitza partikularretan jasotako udal-hondakin nahasketa bat dela (20 03 01 hondakina).

j) Hondakin horiek ez direla tratatzen Erkidegoko Zuzenbidean ezarritako ezabatze-jarduerari aplikatu ahal zaizkien ingurumena babesteko legezko arauak betez, aldi baterako salbuespenak ematen diren kasuak barne hartuta.

2. Igarotzako agintari eskudunek kontrako arrazoiak aurkeztu ahal izango dituzte, 1. paragrafoan aipatutako 30 eguneko epean, 1. paragrafoko b), c), d) eta f) idatz-zatietan oinarrituta.

3. Bidalketako estatu kidean ekoiztiko hondakin arriskutsuak badira, baina, urteko kopuru orokorrak hain txikiak izanik, estatu kide horretan ekonomia-aldetik bideraezina bada ezabatzeko instalazio espezializatu berriak sortzea, ez da aplikatuko 1. paragrafoko a) idatz-zatian xedatutakoa.

Helmugako agintari eskuduna lankidetzan arituko da paragrafo hau ezarri behar dela eta 1. paragrafoko a) idatz-zatia ezarri behar ez dela uste duen bidalketako agintari eskudunarekin, auzia bi aldetik konpontze aldera.

Konponbide egokirik lortu ezik, bi estatu kideek Batzordeari aurkeztu ahal izango diote auzia, eta Batzordeak ebazpena emango du 2006/12/EE Zuzentaruaren 18. artikuluko 3. paragrafoan jasotako prozeduraren arabera.

4. Lehenengo paragrafoan aipatutako 30 eguneko epean agintari eskudunek erabakitzen baldin badute konpondu direla kontrako arrazoiak aurkezteko zeuden arazoak, berehala jakinaraziko diote jakinarazleari, idatziz, eta kopia bana emango diete jasotzaileari eta tartean dauden agintari eskudun guztiei.

5. Kontrako arrazoiak eragin zituzten arazoak 1. paragrafoan aipatutako 30 eguneko epean konpontzen ez badira, berriz, jakinarazpena baliorik gabe geratuko da. Hala ere jakinarazleak lekualdaketa egiteko asmoa badu, beste jakinarazpen bat egin beharko du, betiere, tartean dauden agintari eskudun guztiek eta jakinarazleak bestelako akordioak egiten ez badute.

6. Estatu kideek, 1. paragrafoaren e) idatz-zatiari jarraiki, ezabatu nahi diren hondakin lekualdaketa oro har edo neurri batean debekatzeko

edota horien kontrako arrazoiak sistematikoki egiteko hartzen dituzten neurriak berehala jakinarazi beharko dizkiote Batzordeari, eta Batzordeak horren berri emango die gainerako estatu kideei.

12. artikulua

Balorizatu nahi diren hondakin lekualdatzeari kontrako arrazoiak

1. Balorizatu nahi diren hondakin lekualdaketa jakin bati buruzko jakinarazpen bat aurkeztzen denean, 8. artikuluari jarraiki, bidalketako eta helmugako agintari eskudunek kontrako arrazoiak aurkeztu ahal izango dituzte, 30 eguneko epean, helmugako agintari eskudunak hartu-agiria igortzen duen egunetik hasita, ondoko arrazoi bat edo batzuk direla-eta, eta Hitzarmenarekin bat etorruta:

a) Aurreikusi den lekualdaketak edo balorizazioak ez duela betetzen 2006/12/EE Zuzentaruak xedatutakoa, batez ere Zuzentaru horrek 3., 4., 7. eta 10. artikuluetan xedatutakoa.

b) Aurreikusitako hondakin lekualdatzean edo balorizatzean ez direla behar bezala betetzen ingurumena babesteko, eta ordena publikoa, segurtasun publikoa eta osasunaren babesa bermatzeko estatuan dauden legezko eta arauzko xedapenak, estatu horretan egiten diren jarduerari dagokienez.

c) Aurreikusitako hondakin lekualdatzean edo balorizatzean ez direla behar bezala betetzen bidalketako estatuan dauden legezko eta arauzko xedapenak, hondakin balorizatzeari dagokionez –bidalketako estatukoak bezain zorrotzak ez diren hondakin tratatzeko arauak betetzen dituen instalazio batean balorizatze lekualdatzen diren hondakin barne hartuta–, betiere, barnermerkatuaren funtzionamendu egokia bermatzeko beharra kontuan izanda.

Hori ez da aplikatuko honako kasu hauetan:

i) Erkidegoan horri buruzko legeria badago, bereziki hondakinei buruzko legeria, eta estatuko legerian –legeria hori estatuko Zuzenbidean sartzean– Erkidegoko legerian dauden eskakizunak bezain zorrotzak diren betekizunak sartu badira.

ii) Helmugako estatuan balorizazio-jarduera egiteko dauden baldintzak eta bidalketako estatuko legerian ezarri diren baldintzak, oro har, baliokideak badira.

iii) Bidalketako estatuko legeria –i) puntuan jasotakoa ez bezalakoa dena– Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 1998ko ekainaren 22an emandako 98/34/EE Zuzentaruaren arabera jakinarazi ez bada, zuzentaru horrek horrela eskatzen badu ere; izan ere, zuzentaru horrek informazio-prozedura bat ezartzen du arau eta erregelamendu teknikoan arloan

informazioaren gizarteko zerbitzuei begira⁽¹⁾.

- d) Jakinarazleak edo jasotzaileak lehenago zigorra jaso duela legezkoak ez ziren lekualdaketak egiteagatik edo legezkoa ez zen eta ingurumenari lotuta zegoen beste edozein jarduera egiteagatik; kasu horretan, bidalketako eta helmugako agintari eskudunek errefusatu ahal izango dituzte pertsona horien parte-hartzea izanda egiten diren lekualdaketa guztiak, estatuko legeriari jarraiki.
- e) Lehenagoko lekualdaketak egitean, jakinarazleak edo instalazioak behin eta berriz hautsi dituztela 15. eta 16. artikulua.
- f) Aurreikusitako hondakinen lekualdaketa edo balorizazioa tartean dauden estatu kideek edota Erkidegoak sinatu dituzten nazioarteko hitzarmenen ondoriozko betebeharren aurkakoak direla.
- g) Balorizatu daitezkeen eta ezin balorizatu daitezkeen hondakinen frakzioaren, behin betiko balorizatuko diren materialen balio zenbatetsiaren, balorizatzeko kostuaren eta ezin balorizatu daiteken frakzioa ezabatzeke kostuaren arteko proportzioa ikusita, ekonomia- eta ingurumen-arloko alderdiak kontuan izanda, ez duela merezi balorizazioa egitea.
- h) Lekualdatzen den hondakina, balorizatu beharrean, ezabatu nahi dela.
- i) Hondakinak 196/61/EE Zuzentarauak jasotzen dituen baina Zuzentaru horretako 9. artikulua 4. paragrafoan azaldutako teknika eskuragarri onenak aplikatzen ez dituen instalazioetan tratatzen direla, instalazioak duen baimenaren arabera.
- j) Hondakin horiek ez direla tratatzen balorizatzeko jardueretan nahitaez bete behar diren ingurumena babesteko legezko arauak jarraiki, edo Erkidegoko legerian ezarrita dauden eta nahitaez bete behar diren balorizatzeko edo ezabatzeke legezko betebeharrak jarraiki, aldi baterako salbuespenak ematen diren kasuak barne hartuta.
- k) Hondakin horiek ez direla tratatzen 2006/12/EE Zuzentaruaren 7. artikuluari jarraiki prestatutako hondakinak kudeatzeko planak betetz, Erkidegoko legerian finkatuta dauden eta nahitaez bete behar diren balorizatzeko edo ezabatzeke legezko betebeharrak beteko direla bermatze aldera.

2. Igarotzako agintari eskudunek aurreikusi den lekualdaketa kontrako arrazoiak aurkeztu ahal izango dituzte, 30 eguneko epean, 1. paragrafo b), d), e) eta f) idatz-zatietan oinarrituta.

3. Lehenengo paragrafoan aipatutako 30 eguneko epean agintari eskudunek erabakitzen baldin

badute kontrako arrazoiak aurkezteko zeuden arazoak konpondu direla, berehala jakinaraziko diete jakinarazleari idatziz, eta kopia bana emango diete jasotzaileari eta tartean dauden agintari eskudun guztiei.

4. Kontrako arrazoiak eragin zituzten arazoak 1. paragrafoan aipatutako 30 eguneko epean konpontzen ez badira, jakinarazpena baliorik gabe geratuko da. Hala ere jakinarazleak lekualdaketa egiteko asmoa badu, beste jakinarazpen bat egin beharko du, betiere, tartean dauden agintari eskudun guztiek eta jakinarazleak bestelako akordiorik egiten ez badute.

5. 51. artikuluan xedatutakoaren arabera, estatu kideek aditzera emango diete Batzordeari agintari eskudunek 1. paragrafoaren c) idatz-zatiari jarraiki aurkeztu diren kontrako arrazoi berri.

6. Bidalketako estatu kideak Batzordeari eta gainerako estatu kideei jakinaraziko die estatuko legeriaren berri, agintari eskudunek legeria hori oinarritzat hartu ahal izan dezaten kontrako arrazoiak aurkeztean, 1. paragrafoaren c) idatz-zatiarekin bat etorrita. Orobat, aditzera emango du zein hondakini eta balorizatzeko edo ezabatzeke zein jarduerari aplikatuko zaizkion kontrako arrazoi horiek, lege eta arau horiek kontrako arrazoiak aurkezteko aipatu aurretik.

13. artikulua

Jakinarazpen orokorra

1. Jakinarazleak jakinarazpen orokor bat aurkeztu ahal izango du hainbat lekualdaketa egiteko, lekualdaketa horietako bakoitzean ondoko baldintza hauek betetzen badira:

- a) Funtsean, hondakinek antzeko ezaugarri fisikoak eta kimikoak badituzte.
- b) Hondakinak jasotzaile berberari eta instalazio bererara lekualdatu nahi badira.
- c) Lekualdaketa ibilbidea berbera baldin bada, jakinarazpenaren agirian zehaztutakoari jarraiki.

2. Ustekabeko inguruabarrak direla-eta ezin bada ibilbide berbera egin, jakinarazleak ahalik eta arinen jakinarazi beharko die eskumena duten agintariei, eta, ahal bada, hondakinak lekualdatzen hasi aurretik egin beharko du, betiere, une horretan argi baldin badaki aldaketa bat egin beharko dela.

Jakinarazpen orokorreko prozedura horri ezin izango zaio errekurtsorik jarri ibilbidearen aldaketa zein den hondakinak lekualdatzen hasi aurretik jakinez gero, eta horrek eragina badu jakinarazpen orokorrean aipatutakoak ez diren beste agintari eskudun batzuegan; kasu horretan beste jakinarazpen bat egin beharko da.

3. Tartean dauden agintari eskudunek jakinarazpen orokor hori erabiltzeko baimena

¹ O L 204, 1998-07-21, 37. or. 2003ko Atxikitze Aktak aldatu zuen Zuzentaru.

baldintzatu ahal izango dute eta, hala, baldintza gisa, gero txostena egiteko eta agiri gehigarriak aurkezteko eskakizuna jarri ahal izango dute, 4. artikulua 2. puntuaren bigarren lerrokadan eta 4. artikulua 3. puntuaren bigarren lerrokadan ezarri dutenarekin bat etorrita.

14. artikulua

Aurretiazko baimena duten balorizazioak instalazioak

1. Balorizazioko instalazio jakin batzuen gainean eskumena duten bidalketako agintari eskudunek instalazio horiei aurretiazko baimenak ematea erabaki ahal izango dute.

Erabaki horiek denboraldi mugatu baterako izango dira eta edozein unetan ezeztatu ahal izango dira.

2. Hamahirugarren artikuluari jarraiki jakinarazpen orokorra aurkezten denean, bidalketako agintari eskudunek, tartean dauden gainerako agintari eskudunekin bat etorrita, 9. artikulua 4. eta 5. paragrafoetan adierazitako baimenaren balio-epea luzatu ahal izango du, gehienez hiru urte gehiagorako.

3. Lehen eta bigarren paragrafoetan xedatutakoari jarraiki, instalazio bati aurretiazko baimena ematea erabakitzen duten agintari eskudunek honako informazio hau eman beharko diote Batzordeari eta, hala behar denean, ELGEko idazkariari:

- a) Balorizatzeko instalazioaren izena, erregistro-zenbakia eta helbidea.
- b) Erabilitako teknologien deskribapena, R kodeak barne hartuta.
- c) IV. eta IVA eranskinetan aipatutako hondakinak edo erabakia aplikatuko zaien hondakinak.
- d) Aurretiazko baimena duen kopuru osoa.
- e) Balio-aldia.
- f) Aurretiazko baimenak izan ditzakeen aldaketak.
- g) Jakinarazitako informazioak izan ditzakeen aldaketak.
- h) Baimenaren ezeztatzeak.

Ondorio horietarako, VI. eranskineko formularioa erabiliko da.

4. Bestalde, 9., 10. eta 12. artikuluetan xedatutakoa gorabehera, tartean dauden agintari eskudunek 9. artikuluari jarraiki emandako baimenek, 10. artikulua betez ezarritako baldintzek edo 12. artikuluaekin bat etorrita aurkeztutako kontrako arazoiek zazpi laneguneko epea bete beharko dute, helmugako agintari eskudunak hartu-agiria igortzen duenetik hasita, 8. artikulua arabera.

5. Laugarren paragrafoan xedatutakoa gorabehera, bidalketako agintari eskudunak erabaki ahal izango du denbora gehiago behar duela jakinarazlearen informazio eta agiri osagarriak jasotzeko.

Kasu horietan, agintari eskudunak idatziz adieraziko dio jakinarazleari, zazpi laneguneko epean, eta tartean dauden gainerako agintari eskudunei idazki horren kopia bana bidaliko die.

Guztira behar den denborak ez du 30 egunetik gora joko, helmugako agintari eskudunak hartu-agiria igortzen duenetik hasita, 8. artikuluari jarraiki.

15. artikulua

Hondakinak erdizka ezabatzeko eta balorizatzeko jardueri buruzko xedapen gehigarriak

Hondakinak erdizka balorizatzeko edo ezabatzeko egiten diren lekualdaketetan, xedapen gehigarri hauek bete beharko dira:

- a) Lekualdatzen diren hondakinak erdizka balorizatu edo ezabatu nahi badira, jakinarazpenaren agirian, argi adierazi beharko dira aurreikuspenen arabera hondakinak erdizka edo behin betiko balorizatzeko edo ezabatzeko jarduerak egiteko erabiliko diren instalazioak eta, orobat, hondakinak erdizka balorizatzeko edo ezabatzeko hasierako jarduera.
- b) Bidalketako eta helmugako agintari eskudunek bakarrik baimendu ahal izango dute hondakinak erdizka balorizatzeko edo ezabatzeko lekualdaketak kontrako arazoirik ikusten ez badute, 11. eta 12. artikuluei jarraiki, hondakinak erdizka edo behin betiko balorizatzeko edo ezabatzeko jardueraren bat egingo duten instalazioetara hondakinak lekualdatzeari dagokionez.
- c) Hondakinak erdizka edo betiko ezabatzeko edo balorizatzeko jarduera egiten duen instalazioak idatziz baieztatu beharko du hondakinak jaso dituela, hiru eguneko epearen barruan, hondakinak heltzen direnetik hasita.

Egiaztapen hori mugimenduaren agirian adieraziko da edo agiri horri erantsiko zaio. Instalazio horrek egiaztapena jasotzen duten mugimenduaren agiriaren kopia sinatuak bidaliko dizkie, hala jakinarazleari nola tartean dauden agintari eskudunei.

- d) Hondakinak erdizka balorizatzeko edo ezabatzeko jarduerak egiten dituen instalazioak ondo egiaztatu beharko du hondakinak erdizka balorizatu edo ezabatu dituela, bere ardurapean eta ahalik eta arinen, baina, gehien jota, jarduera bukatu eta ondoko 30 egunen barruan, edo, bestela, urtebete zibileko epean edo epe laburragoan, hondakinak jasotzen direnetik

hasita, 9. artikulua 7. paragrafoan ezarritakoari jarraiki.

Ziurtagiri hori mugimenduaren agirian adieraziko da edo agiri horri erantsiko zaio.

Instalazio horrek ziurtagiri hori jasotzen duten mugimenduaren agiriaren kopia sinatuak bidaliko dizkie hala jakinarazleari nola tartean dauden agintari eskudunei.

- e) Hondakinak erdizka balorizatzeko edo ezabatzeko jarduerak egiten dituen instalazio batek hondakinak ematen badizkio helmugako estatuan dagoen instalazio bati, horrek hondakinak erdizka edo betiko balorizatu edo ezabatu ditzan, lehenengo instalazioak lehenbailehen eskuratu beharko du bigarren instalazioak hondakinak behin betiko balorizatzeko edo ezabatzeko jarduera burutu duela egiaztatzeko egindako ziurtagiria, hain zuzen, urtebeteko epean lortu beharko du gehien jota, hondakinak eman dizkioten egunetik hasita, edo epe laburrago batean, 9. artikulua 7. paragrafoan ezarritakoari jarraiki.

Hondakinak erdizka balorizatzeko edo ezabatzeko jarduera egiten duen instalazio horrek berehala bidali beharko dizkie behar diren ziurtagiriak, hala jakinarazleari, nola tartean dauden agintari eskudunei, eta agiri horretan jasota utzi beharko du ziurtagiri horri edo horiei dagozkien lekualdaketak.

- f) Ondoko lekuetan kokatutako instalazio bati e) idatz-zatian azaldutako hondakinak ematean:
- i) Hasierako bidalketako estatuan edo beste estatu kide batean, beste jakinarazpen bat egin beharko da, titulu honen xedapenak betez.
- ii) Hirugarren estatu batean, beste jakinarazpen bat egin beharko da Erregelamendu honetako xedapenak betez, baina, berezitasun gisa, tartean dauden agintari eskudunei buruzko xedapenak era berean ezarriko zaizkie hasierako bidalketako agintari eskudunei.

16. artikulua

Hondakinen lekualdaketa baimendu ondoren bete beharreko eskakizunak

Tartean dauden agintari eskudunek hondakinak lekualdatzeko baimena jakinarazi ondoren, tartean dauden enpresa guztiek mugimenduaren agiria bete beharko dute. Jakinarazpen orokorra eginez gero, berriz, mugimenduaren agirian adierazitako puntuak bete beharko dituzte, eta agiri horiek sinatu eta haien kopia bat gorde beharko dituzte. Honako eskakizun hauek bete beharko dira:

- a) Jakinarazleak mugimenduaren agiria beteko du: jakinarazleak, bidalketako, helmugako eta igarotzako agintari eskudunen baimena jaso

ondoren, edo, bestela, igarotzako agintari eskudunei dagokienez, isilbidezko baimena eman diotela jotzen duenean, lekualdaketa benetako data jarriko du eta mugimenduaren agiriko gainerako datuak beteko ditu, ahal duen neurrian.

- b) Aurretiazko informazioa, lekualdaketa benetan hasteari buruzkoa: jakinarazleak une horretan betetako mugimenduaren agiriaren kopia sinatuak bidaliko dizkie tartean dauden agintari eskudunei eta jasotzaileari, a) idatz-zatian xedatutakoari jarraiki, gutxienez, lekualdaketa ekin baino hiru egun lehenago.
- c) Garraioa egitean eraman beharko diren agiriak: jakinarazleak mugimenduaren agiriaren kopia bat gordeko du. Garraio bat egitean, mugimenduaren agiria eta tartean dauden agintari eskudunek emandako idatzizko baimenak eta agintari horiek ezarritako baldintzak jasotzen dituen jakinarazpenaren agiria eraman beharko ditu. Hondakinak jasotzen dituen instalazioak mugimenduaren agiria gordeko du.
- d) Instalazioak hondakinak jaso dituela baieztatzeko egindako idazkia: instalazioak hondakinak jaso dituela baieztatuko du idatziz, hiru eguneko epean, hondakinak jaso dituenetik hasita.

Egiaztapen hori mugimenduaren agirian adieraziko da edo agiri horri erantsiko zaio.

Instalazioak egiaztapena jasotzen duten mugimenduaren agiriaren kopia sinatuak bidaliko dizkie, hala jakinarazleari nola tartean dauden agintari eskudunei.

- e) Instalazioak egindako behin betiko ezabapenaren edo balorizazioaren ziurtagiria: hondakinak balorizatzeko edo ezabatzeko jarduerak egiten dituen instalazioak ondo egiaztatu beharko du hondakinak behin betiko balorizatu edo ezabatu dituela, bere ardurapean eta ahalik eta arinen, baina, gehien jota, jarduera bukatu eta ondoko 30 egunen barruan, edo, bestela, urtebete zibileko epean edo epe laburragoan, hondakinak jasotzen direnetik hasita, 9. artikulua 7. paragrafoan ezarritakoari jarraiki.

Ziurtagiri hori mugimenduaren agirian adieraziko da edo agiri horri erantsiko zaio.

Instalazioak egiaztapen hori jasotzen duten mugimenduaren agiriaren kopia sinatuak bidaliko dizkie, hala jakinarazleari nola tartean dauden agintari eskudunei.

17. artikulua

Baimena lortu ondoren lekualdaketa aldaketak egitea

1. Baimendutako lekualdaketa baten xehetasunetan edo baldintzetan eragina izango duen aldaketa garrantzitsuren bat eginez gero – aurreikusitako kopuruari, ibilbideari, bideari,

lekualdaketaren datari edo garraiolariari buruzko aldaketaren bat-, jakinarazleak berehala jakinarazi beharko die horren berri tartean dauden agintari eskudunei eta jasotzaileari, eta, ahal izanez gero, lekualdaketari ekin aurretik egin beharko du.

2. Kasu horietan, jakinarazpen berria egin beharko du, betiere, tartean dauden agintari eskudun guztiek erabakitzen ez badute proposatu diren aldaketak direla-eta ez dela jakinarazpen berririk egin behar.

3. Aldaketa horiek eragina baldin badute hasierako jakinarazpenekoak ez diren agintari eskudun batzuegan, jakinarazpen berria egin beharko da.

2. KAPITULUA

Informazio orokorreko eskakizunak

18. artikulua

Informazio jakin bat izan behar duten hondakinak

1. Lekualdatu nahi diren eta 3. artikuluko 2. eta 4. paragrafoetan aipatu diren hondakinek prozedurako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

- a) Mota honetako hondakinen lekualdaketen jarraipena errazte aldera, lekualdaketa antolatzen duen estatuaren eskumenaren menpean dagoen pertsonak ondo ziurtatu beharko du hondakinekin batera VII. eranskinean agertzen den agiria eramaten dela.
- b) Lekualdaketa antolatzen duen pertsonak VII. eranskinean agertzen den agiria sinatuko du, lekualdaketari ekin aurretik, eta, era berean, balorizazio instalazioak edo laborategiak eta jasotzaileak agiri hori sinatuko dute, hondakinak jasotzen dituztenean.

2. VII. eranskinean aipatutako kontratuak, lekualdaketa antolatzen duen pertsonak eta balorizatutako hondakinen jasotzaileak egindako kontratuak, alegia, eragina izango du lekualdaketari ekiten zaion uean, eta, hondakinaren lekualdaketa edo hondakinaren balorizazioa ezin bada egin aurreikusita dagoen moduan, edo legezkoa ez den lekualdaketa bat egiten bada, orduan, lekualdaketa egiten duen pertsonak edota –persona horrek ezin badu hondakinaren lekualdaketa edo balorizazioa burutu (adibidez, kaudimen-gabezia dela-eta)– jasotzaileak honako betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Hondakinen arduraren gain hartu beharko dute berriz, edo hondakinak ordezkotzeko bide batez balorizatutako direla bermatuko dute.
- b) Hala behar bada, bien bitartean hondakina biltegitratzeko modua ezarri beharko dute.

Lekualdaketa antolatzen duen pertsonak edo jasotzaileak kontratuaren kopia aurkeztu beharko

dute, agintari eskudunak horrela eskatzen baldin badu.

3. Ikuskapen-, plangintza- eta estatistika-ondorioetarako, estatu kideek, estatuko Zuzenbideari jarraiki, 1. paragrafoan adierazitako informazioa eskatu ahal izango dute, artikulua honetan aipatzen diren lekualdaketei buruzkoa.

4. Erkidegoko eta estatuko legeriak hala eskatzen duenean, 1. paragrafoan aipatzen den informazioa isilpeko informazioetat hartuko da.

3. KAPITULUA

Betekizun orokorrak

19. artikulua

Lekualdaketa hondakinak nahasteko debekua

Lekualdaketa ekiten zaion unetik hondakinak balorizatzeko edo ezabatzeko instalazio batera iristen diren arte, jakinarazpenaren agirian edo 18. artikuluan aipatutako hondakinak ez dira beste hondakin batzuekin nahastuko.

20. artikulua

Agiriak eta informazioa gordetzea

1. Agintari eskudunek, jakinarazleak, jasotzaileak eta hondakinak jasotzen dituen instalazioak, lekualdaketari ekiten zaion unetik hasita, gutxienez hiru urtez gordeko dituzte Erkidegoan agintari eskudunei zuzendutako edota agintari horiek jakinarazitako lekualdaketa bat dela-eta bidalitako agiri guztiak.

2. Lekualdaketa antolatzen duen pertsonak, jasotzaileak eta hondakinak jasotzen dituen instalazioak 18. artikuluan 1. paragrafoari jarraiki emandako informazioa Erkidegoan gordeko dute, gutxienez hiru urtez, lekualdaketari ekiten zaion unetik hasita .

21. artikulua

Jendeak jakinarazpenak eskuragarri izatea

Bidalketako edo helmugako agintari eskudunek baimendutako lekualdaketei buruzko informazioa argitara eman ahal izango dute, bide egokiak erabiliz, adibidez, Internet, betiere, informazio hori isilpekoa ez bada Erkidegoko edo estatuko legeriaren arabera.

4. KAPITULUA

Hondakinak itzultzeko betebeharrak

22. artikulua

Hondakinak itzultzea, lekualdaketa aurreikusitakoari jarraiki ezin egin daitekeenean

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Tartean dagoen agintari eskudun batek jakiten badu hondakinaren lekualdaketa bat –hondakina balorizatzeko edo ezabatzeko jarduerak barne hartuta– ezin dela burutu jakinarazpenaren edo mugimenduaren agirian aurreikusitako moduan edota 4. artikulua 4. puntuko bigarren lerrokan edo 5. artikuluan aipatutako kontratuan aurreikusitako moduan, orduan, berehala jakinarazi beharko dio bidalketako agintari eskudunari. Hondakinak balorizatzeko edo ezabatzeko instalazio batek uko egiten badiu jaso duen lekualdaketa bati, berehala jakinarazi beharko dio bidalketako agintari eskudunari.

2. Bidalketako agintari eskudunak ondo ziurtatu beharko du, 3. paragrafoan jasotako kasuetan izan ezik, jakinarazleak hondakin horiek berriz itzuliko dituela dagozkien jurisdikzio-esparrura edo bidalketako estatuko beste alderdi batera, 2. artikulua 15. puntuan ezarritako ordenari jarraiki identifikatu ondoren, edo, hala egin ezean, agintari eskudunak edota haren izenean aritzen den pertsona fisikoak edo juridikoak identifikatu ondoren.

Hori guztia, gehienez, 90 eguneko epean egin beharko da, edo tartean dauden agintari eskudunek ezarritako bestelako epe batean, betiere, bidalketako agintari eskudunak horren berri jakin duen unetik hasita, edota helmugako edo igarotzeko agintari eskudunek baimendutako lekualdaketa edo hondakin horien balorizazioa edo ezabaketa ezin burutu daitekeela idatziz jakinarazten dioten eta horren arrazoiak azaltzen dizkieten unetik hasita. Ohar horren arrazoiak izango da agintari eskudunek helmugako edo igarotzeko agintari eskudunei –beste erakunde batzuen artean– aurkeztutako informazioa.

3. Bigarren paragrafoan ezarritako itzultzeko betebeharra ez da aplikatuko hondakinak balorizatzeko edo ezabatzeko jardueretan sartuta dauden bidalketako, igarotzeko eta helmugako agintari eskudunek erabakitzen badute jakinarazleak, edo, bestela, bidalketako agintari eskudunak edo haren izenean aritzen den pertsona fisikoak edo juridikoak hondakin horiek beste era batera balorizatu edo ezabatu ditzakeela helmugako estatuan edo beste toki batean.

Bigarren paragrafoan aipatutako itzultzeko betebeharra ez da aplikatuko dena delako instalazioan egiten den jardueran lekualdatutako hondakinak beste hondakin batzuekin nahastu badira, agintari eskudun batek jakin aurretik jakinarazitako lekualdaketa ezin izan dela burutu 1. paragrafoan adierazitako moduan. Nahasketa horiek ordezko bideak baliatuz balorizatzeko edo ezabatutako dira, lehenengo paragrafoari jarraiki.

4. Bigarren paragrafoan aipatutako itzultzeko betebeharra aplikatzen denean, jakinarazpen berria egin beharko da, betiere, tartean dauden agintari eskudunek erabakitzen ez badute aski dela hasierako bidalketako agintari eskudunak ondo arazoitutako eskaera aurkeztea.

Jakinarazpen berria ezinbestez aurkeztu behar denean, hasierako jakinarazleak aurkeztuko du, edo, bestela, 2. artikulua 15. puntuaren arabera identifikatutako edozein pertsona fisiko edo juridiko edota hasierako bidalketako agintari eskudunak edo haren izenean aritzen den pertsona fisiko edo juridiko batek.

Agintari eskudunek ez dute kontrako arrazoirik aurkeztuko eta ez dute errefusatuko erabat burutu ezin izan diren lekualdaketa edo horri dagozkion balorizazio edo ezabaketa-jardueretako hondakinak atzera itzultzea.

5. Hirugarren paragrafoan aipatutako hasierako helmugako estatutik kanpoko ordezkio planei dagokienez, jakinarazpen berria ezinbestez aurkeztu behar denean, hasierako jakinarazleak aurkeztuko du, edo, bestela, 2. artikulua 15. puntuaren arabera identifikatutako edozein pertsona fisiko edo juridiko edota hasierako bidalketako agintari eskudunak edo haren izenean aritzen den pertsona fisiko edo juridiko batek.

Jakinarazleak jakinarazpen berria aurkezten duenean, jakinarazpen hori era berean aurkeztu beharko zaio hasierako bidalketako agintari eskudunari.

6. Hasierako helmugako estatuan 3. paragrafoan aipatzen diren ordezkio planak badaude, ez da jakinarazpen berririk egin beharko eta aski izango da behar bezala arazoitutako eskaera aurkeztea. Ordezko planekin bat etortzea eskatuko duen ondo arazoitutako eskaera hori helmugako eta bidalketako agintari eskudunari igorri beharko dio hasierako jakinarazleak edo, bestela, hasierako bidalketako agintari eskudunak bidali beharko dio helmugako agintari eskudunari.

7. Jakinarazpen berririk egin behar ez bada, 4. edo 6. paragrafoei jarraiki, hasierako jakinarazleak mugimenduaren agiri berria bete beharko du, 15. edo 16. artikuluekin bat etorrira; bera izan ezik, 2. artikulua 15. puntuaren arabera identifikatutako pertsona fisikoak edo juridikoak egin beharko du, edo, bestela, hasierako bidalketako agintari eskudunak edo bere izenean aritzen den pertsona fisiko edo juridiko batek.

Bidalketako hasierako agintari eskudunak jakinarazpen berria egiten badu, 4. edo 5. paragrafoei jarraiki, ez da fidantzarik edo aseguru baliokiderik eskatuko.

8. Jakinarazleak eta bidalketako estatuak hondakinaren ardura beren gain hartzeko edo hondakinak ordezkio bide bat erabiliz balorizatzeko edo ezabatzeko duten betebeharrak subsidiarioa bukatuko da instalazioak 16. artikulua e) idatz-zatian aipatzen den behin betiko balorizazioaren edo ezabaketaren ziurtagiria –edo, hala behar denean, 15. artikulua e) idatz-zatian adierazten dena– egiten duenean. Seigarren artikulua 6. paragrafoan aipatzen diren hondakinak erdizka balorizatzeko edo ezabatzeko jardueren kasuetan, bidalketako estatuak duen betebeharrak subsidiarioa bukatuko da instalazioak

15. artikulua d) idatz-zatian aipatzen den ziurtagiria egiten duenean.

Instalazioak balorizazioari edo ezabapenari buruzko ziurtagiri bat egiten bada eta, horren ondorioz, legezkoa ez den lekualdaketa bat egiten bada eta fidantza askatu behar bada, 24. artikulua 3. paragrafoan eta 25. artikulua 2. paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da.

9. Estatu kide baten barnean burutu gabe geratu den lekualdaketa baten hondakinak ezematen direnean –hondakinak balorizatzeko edo ezabatzeko jarduerak ere barne hartuta–, hondakin horiek aurkitu diren aldean eskumena duen agintariak izango du hondakin horiek toki seguruan biltegitratzeko ardura, atzera itzuli arte edo ordezkotzeko bidez behin betiko balorizatu edo ezabatu arte.

23. artikulua

Hondakinak itzultzeak eragindako kostuak, lekualdaketa ezin egin daitekeenean

1. Honako hauei egotziko zaizkie burutu gabe geratu den hondakinaren lekualdaketa bat atzera itzultzeak eragindako kostuak, garraioak, 22. artikulua 2. edo 3. paragrafoaren arabera egindako balorizazio- edo ezabatze-jardueren kostuak, eta, bidalketako agintari eskudunak hondakinaren lekualdaketa, balorizazioa edo ezabaketa ezin burutu daitekeela jakiten duenetik hasita, 22. artikulua 9. paragrafoaren arabera egindako biltegitratze-lanen kostuak:

- a) jakinarazleari, 2. artikulua 15. puntuan ezarritako ordenari jarraiki identifikatuta, edo
- b) beste pertsona fisiko edo juridiko batzuei, dagokien eran, edo
- c) bidalketako agintari eskudunari, edo
- d) Beste era batean egingo da, tartean dauden agintari eskudunak erabakitzen dutenaren arabera.

2. Artikulu hau aplikatuko da erantzukizun-arloko erkidegoko eta estatuko xedapenei kalterik egin gabe.

24. artikulua

Lekualdaketa legezkoa ez denean hondakinak atzera itzultzea

1. Agintari eskudun batek legezkoa ez den lekualdaketa bat aurkitzen duenean, berehala jakinaraziko die tartean dauden gainerako agintari eskudunei.

2. Legezkoa ez den lekualdaketa jakinarazlearen erantzukizuna baldin bada, bidalketako agintari eskudunak ardura hartuko du hondakin horiekin honako hau egiteko:

- a) Egiteko jakinarazleak atzera itzultzeko, edo, jakinarazpenik egin ez bada,

- b) Zuzenbideko jakinarazleak atzera itzultzeko, edo, bestela,

- c) Bidalketako agintari eskudunak edo bere izenean aritzen den pertsona fisiko edo juridiko batek atzera itzultzeko, edo, bestela,

- d) Helmugako edo bidalketako estatuan, bidalketako agintari eskudunak edo haren izenean aritzen den pertsona fisiko edo juridiko batek ordezkotzeko bidez bat erabiliz balorizatzeko edo ezabatzeko, edo, bestela,

- e) Beste estatu batean, bidalketako agintari eskudunak edo haren izenean aritzen den pertsona fisiko edo juridiko batek ordezkotzeko bidez bat erabiliz balorizatzeko edo ezabatzeko, betiere, tartean dauden agintari eskudunak horrekin bat etortzen badira.

Itzulketa, balorizazio edo ezabaketa hori 30 eguneko epean egin behar da, edo tartean dauden agintari eskudunak adostutako beste epe batean, betiere, bidalketako agintari eskudunak legezkoa ez den lekualdaketa berri jasotzen duenetik edota bidalketako edo igarotzeko agintari eskudunak idatziz horri buruz bidalitako oharra eta horren arrazoiak jasotzen dituenetik hasita. Ohar hori agintari eskudunak helmugako edo igarotzeko agintari eskudunei, beste erakunde batzuen artean, aurkeztutako informazioaren ondorio izango da.

Bestalde, a), b) eta c) idatz-zatietan aipatutako itzultzeko betebeharrak aplikatzen denean, jakinarazpen berria egin behar da, betiere, tartean dauden agintari eskudunak erabakitzen ez badute aski dela hasierako bidalketako agintari eskudunak ondo arrazoitutako eskaera aurkeztea.

Jakinarazpen berria a), b) edo c) idatz-zatietan aipatutako pertsonak edo agintariak aurkeztu behar du, agindu honi jarraiki.

Agintari eskudunak ez dira legezkoak ez diren lekualdaketa itzultzearen aurka azalduko, eta ezin izango dute itzulketa horren kontrako arrazoirik aurkeztu. Bidalketako agintari eskudunak betearazi behar dituen eta d) eta e) idatz-zatietan aipatu diren ordezkotzeko planei dagokienez, hasierako bidalketako agintari eskudunak edo, bestela, haren izenean aritzen den pertsona fisiko edo juridiko batek jakinarazpen berria aurkeztu behar du, betiere, tartean dauden agintari eskudunak erabakitzen ez badute aski dela agintari horrek behar bezala arrazoitutako eskaera bat aurkeztea.

3. Legezkoa ez den lekualdaketa jasotzailearen erantzukizuna baldin bada, bidalketako agintari eskudunak ondo zaindu behar du honako honek hondakin horiek ingurumen-aldetik egokia den eran ezabatu edo balorizatu ditzan:

- a) Jasotzaileak, edo, bestela,

- b) Agintari eskudunak edo bere izenean aritzen den pertsona fisiko edo juridiko batek.

Balorizazio edo ezabaketa hori 30 eguneko epean egin beharko da, edo tartean dauden agintari eskudunek adostutako beste epe batean, betiere, bidalketako agintari eskudunak legezkoa ez den lekualdaketa berri jasotzen duenetik edota bidalketako edo igarotzeko agintari eskudunek idatziz horri buruz bidalitako oharra eta horren arrazoiak jasotzen dituenetik hasita. Ohar hori agintari eskudunek bidalketako edo igarotzeko agintari eskudunei, beste erakunde batzuen artean, aurkeztutako informazioaren ondorio izango da.

Ondorio horretarako, hala behar izanez gero, tartean dauden agintari eskudunek lankidetzan aritu beharko dute hondakinak balorizatzeko edo ezabatzeke lanetan.

4. Jakinarazpen berririk egin beharrik ez badago, hondakinak itzultzeko ardura duen pertsonak, edo, bestela, bidalketako agintari eskudunak mugimenduaren agiri berria egin beharko du, 15. edo 16. artikuluei jarraiki.

Hasierako bidalketako agintari eskudunak jakinarazpen berria egiten badu, ez da fidantza edo aseguru baliokide berririk eskatuko.

5. Legezko lekualdaketa arduraren ezin bazaio jakinarazleari edo jasotzaileari leporatu, tartean dauden agintari eskudunek laguntza eman beharko dute hondakin horiek balorizatuko edo ezabatuko direla bermatzeko.

6. Bestalde, 6. artikulua 6. paragrafoan aipatzen den erdizkako balorizazioen edo ezabapenen kasuetan, erdizka balorizatzeko edo ezabatzeke jarduera bukatu ondoren legezkoa ez den lekualdaketa bat atzematen bada, bidalketako estatuak subsidiarioki bere gain hartu beharko ditu hondakinak, edo neurriak hartu beharko ditu hondakinak balorizatzeko edo ezabatzeke ordezkotzeko bideak erabiliz, eta betebeharrak ez da bukatuko harik eta instalazioak 15. artikulua d) idatz-zatian aipatzen den ziurtagiria ematen duen arte.

Instalazio batek balorizazioari edo ezabapenari buruzko ziurtagiri bat egiten badu, eta, horren ondorioz, legezkoa ez den lekualdaketa bat egiten bada eta fidantza askatu behar bada, 3. paragrafoan eta 25. artikulua 2. paragrafoan xedatutako aplikatuko da.

7. Legezkoa ez den lekualdaketa baten hondakinak atzematen direnean, hondakin horiek aurkitu diren aldean eskumena duen agintariak izango du hondakin horiek toki seguruan biltegitzako ardura, atzera itzuli arte edo ordezkotzeko bide batez behin betiko balorizatu edo ezabatu arte.

8. Horrez gain, 34. eta 36. artikulua ez dira aplikatuko legezkoak ez diren lekualdaketa bidalketako estatura atzera itzultzen badira, eta estatu

horrek artikulua horietan adierazitako debekuak bete behar baditu.

9. Bigarren artikulua 35. puntuaren g) idatz-zatian azaldutako legezkoa ez den lekualdaketa bat izanez gero, lekualdaketa antolatzen duen pertsonak artikulua honek jakinarazleari ezartzen dizkion betebeharrak bete beharko ditu.

10. Artikulu hau aplikatuko da, erantzukizun-erlako erkidegoko eta estatuko xedapenei kalterik egin gabe.

25. artikulua

Lekualdaketa legezkoa ez denean hondakinak atzera itzultzeak eragindako kostuak

1. Honako hauei egotziko zaizkie legezkoa ez den hondakinaren lekualdaketa bat atzera itzultzeak eragindako kostuak, garraioko kostuak, 24. artikulua 2. paragrafoaren arabera egindako balorizazio edo ezabaketako jardueren kostuak, eta, bidalketako agintari eskudunak lekualdaketa legezkoa ez dela jakiten duenetik hasita, 24. artikulua 7. paragrafoaren arabera egindako biltegitzate-lanen kostuak:

- a) jakinarazleari, 2. artikulua 15. puntuan ezarritako ordenari jarraiki identifikatuta, edo, bestela, jakinarazpenik egin ez bada,
- b) zuzenbideko jakinarazleari, edo beste pertsona fisiko edo juridiko batzuei, dagokien eran, edo, bestela,
- c) bidalketako agintari eskudunari.

2. Hondakinak 24. artikulua 3. paragrafoaren arabera balorizatzeko edo ezabatzeke jarduerak eragindako kostuak, eta 24. artikulua 7. paragrafoaren arabera egin daitezkeen garraio- eta biltegitzate-kostuak, berriz, honako hauei egotziko zaizkie:

- a) jasotzaileari, edo, bestela,
- b) bidalketako agintari eskudunari.

3. Hondakinak 24. artikulua 5. paragrafoaren arabera balorizatzeko edo ezabatzeke jarduerak eragindako kostuak, eta 24. artikulua 7. paragrafoaren arabera egin daitezkeen garraio- eta biltegitzate-kostuak honako hauei egotziko zaizkie:

- a) jakinarazleari, 2. artikulua 15. puntuari jarraiki identifikatuta, edo jasotzaileari, tartean dauden agintari eskudunek hartutako erabakiaren arabera, edo, bestela,
- b) beste pertsona fisiko edo juridiko batzuei, dagokien eran, edo, bestela,
- c) bidalketako eta helmugako agintari eskudunei.

4. Bigarren artikulua 35. puntuaren g) idatz-zatian azalduko legezkoa ez den lekualdaketa bat izanez gero, lekualdaketa antolatzen duen pertsonak artikulua honek jakinarazleari ezartzen dizkion betebeharrak bete beharko ditu.

5. Artikulu hau aplikatuko da, erantzukizun arloko erkidegoko eta estatuko xedapenei kalterik egin gabe.

5. KAPITULUA

Administrazioko xedapen orokorrak

26. artikulua

Jakinarazpenen formatua

1. Hurrengo lerroetan aipatzen diren agiriak eta informazioa postaz bidali ahal izango dira:

- a) Aurreikusitako lekualdaketa baten jakinarazpena, 4. eta 13. artikuluei jarraiki.
- b) Informazioaren eta agirien eskaera, 4., 7. eta 8. artikuluei jarraiki.
- c) Informazioa eta agiriak ematea, 4., 7. eta 8. artikuluei jarraiki.
- d) Jakinarazitako lekualdaketa bat idatziz baimentzea, 9. artikuluari jarraiki.
- e) Lekualdaketa bat egiteko baldintzak, 10. artikuluari jarraiki.
- f) Aurreikusitako lekualdaketa baten kontrako arazoak, 11. eta 12. artikuluei jarraiki.
- g) Balorizatzeko instalazio jakin batzuei aurretiazko baimenak emateko erabakiei buruzko informazioa, 14. artikulua 3. paragrafoari jarraiki.
- h) Hondakinak jaso direla baieztatzeko idazkia, 15. eta 16. artikuluei jarraiki.
- i) Hondakinak balorizatu edo ezabatu direla dioen ziurtagiria, 15. eta 16. artikuluei jarraiki.
- j) Lekualdaketa hasi aurretik eman behar den informazioa, 16. artikuluari jarraiki.
- k) Baimena eman ondoren lekualdaketa egin diren aldaketei buruzko informazioa, 17. artikuluari jarraiki.
- l) Bidali behar diren mugimenduen agiriak eta idatzizko baimenak, IV., V. eta VI. tituluei jarraiki.

2. Tartean dauden agintari eskudunak eta jakinarazlea bat etorri gero, 1. paragrafoan aipatutako agiriak ondoko komunikabideetako bat erabiliz aurkeztu ahal izango dira:

- a) Faxez.
- b) Faxez eta, ondoren, posta arruntaren bidez.
- c) Posta elektronikoz, sinadura digitala jarrita. Kasu horretan, behar diren zigiluen eta sinaduren ordean, sinadura digitala jarri beharko da.
- d) Posta elektronikoz, baina sinadura digitalik gabe, eta, horren ondoren, posta arruntaren bidez.

3. Garraio bakoitzarekin batera eraman beharreko agiriak, 16. artikulua c) idatz-zatian eta 18. artikulua ezarritakoari jarraiki, formatu elektronikoa aurkeztu ahal izango dira, sinadura digitalak jarrita, garraiatu bitartean une guztietan irakurtzeko moduan badaude eta tartean dauden agintari eskudunak onartzen badute.

4. Tartean dauden agintari eskudunak eta jakinarazleak aurrez horrela adosten badute, 1. paragrafoan aipatutako informazioa eta agiriak datuen truke elektronikoa bidez aurkeztu ahal izango dira, sinadura digitala jarrita edo egiaztapen elektronikoa izanda, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko abenduaren 13ko 1999/93/EE Zuzentarauari jarraiki –zuzentarau horrek sinadura elektronikorako esparru europarra ezarri baitu⁽¹⁾–, edo segurtasun-maila berbera ematen duen egiaztapen elektronikoko sistema bat baliatuz. Kasu horietan, antolakuntzako akordioak egin ahal izango dira datuen truke elektronikoa fluxua antolatzeko.

27. artikulua

Hizkuntza

1. Titulu honetan xedatutakoari jarraiki aurkeztzen diren jakinarazpenak, informazioa, agiriak edo bestelako adierazpenak tartean dauden agintari eskudunak onartzeko moduko hizkuntza batean egin beharko dira.

2. Tartean dauden agintari eskudunak horrela eskatzen badute, jakinarazleak itzulpen baimendu bat aurkeztu beharko du, agintari horientzat onartzeko modukoa den hizkuntza batean egin.

28. artikulua

Sailkapen arloko desadostasunak

1. Bidalketako eta helmugako agintari eskudunak ezin badute akordiorik egin sailkapen-arloan, hondakinak diren eta hondakinak ez diren gaien artean, orduan, desadostasunak sorrarazten dituen materia hondakintzat joko da; hori gorabehera, bidalketako estatuak lekualdatutako materialak bere Zuzenbideko xedapenak bete behar dituela eskatu ahal izango du, behin lekualdatutako materiala iritsi ondoren eta, betiere, bere barneko Zuzenbidea Erkidegoko edo nazioarteko zuzenbidearekin bat badator.

¹ EO L 13, 2000-01-19, 12. or.

2. Bidalketako eta helmugako agintari eskudunek akordiorik lortzen ez badute III., IIIA, IIIB edo IV. eranskinetan aipatzen diren eta jakinarazi diren hondakinak sailkatzeko, IV. eranskinari dagozkiola joko da.

3. Bidalketako eta helmugako agintari eskudunek akordiorik lortzen ez badute hondakinak tratatzeko jarduera balorizazio edo ezabaketa gisa sailkatzeko, ezabaketari buruzko xedapenak ezarriko dira.

4. 1., 2. eta 3. paragrafoak bakarrik aplikatuko dira Erregelamendu honen ondorioetarako, eta, hala ere, alde interesdunek eskubidea izango dute auzi horiei lotutako edozein gatazka auzitegian konpondu ahal izateko.

29. artikulua

Administrazioko kostuak

Jakinarazleari dagozkion administrazio-kostuak eta jakinarazteko eta zaintzeko prozedurak ezartzeak eragindako kostuak egotzi ahal izango zaizkio, bai eta azterketak eta ikuskapenak egiteko ohiko kostuak ere.

30. artikulua

Mugaldeari buruzko akordioak

1. Salbuespenezko kasuetan, egoera geografikoa edo demografikoa dela-eta hala behar denean, estatu kideek bi aldeko akordioak egin ahal izango dituzte hondakinen fluxu zehatzen lekualdaketa jakinarazteko prozedura errazte aldera, tartean dauden bi estatu kideen mugaldetik hurbilen dauden instalazio egokietara mugaz gaindiko lekualdaketa egiteari dagokionez.

2. Bi aldeko akordio horiek era berean egin ahal izango dira hondakinak bidalketako estatutik lekualdatzen direnean eta bertan tratatzen direnean, baina, betiere, beste estatu kide batetik ibili behar direnean.

3. Estatu kideek horrelako akordioak egin ahal izango dituzte Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuekin.

4. Batzordeari akordio horien berri jakinaraziko zaio, akordioak indarrean sartu aurretik.

6. KAPITULUA

Hirugarren estatuetatik igarotzen diren erkidego barruko lekualdaketa

31. artikulua

Ezabatu nahi diren hondakinak lekualdatzea

Hondakinak Erkidegoaren barruan lekualdatzen direnean, hirugarren estatu bat edo batzuk igaro, eta ezabatu nahi direlako, bidalketako agintari eskudunak, titulu honetan xedatutakoaz gain,

hirugarren estatuko agintari eskudunari galdetuko dio ea honako kasu hauetan idatzizko baimena emango dion aurreikusitako lekualdaketa horri:

- a) Basileako Hitzarmena sinatu duten estatuak direnean, 60 egunetik gora jotzen ez duen epean, betiere, eskubide horri uko egin ez badiote Hitzarmenean ezarritakoari jarraiki.
- b) Basileako Hitzarmena sinatu ez duten estatuak direnean, agintari eskudunek adostu duten epean.

32. artikulua

Balorizatu nahi diren hondakinak lekualdatzea

1. Hondakinak Erkidegoaren barruan lekualdatzen direnean, ELGERen Erabakiaren mende ez dagoen hirugarren estatu bat edo batzuk igaro, eta balorizatu nahi direlako, 31. artikulua aplikatuko da.

2. Hondakinak Erkidegoaren barruan lekualdatzen direnean –estatu kide batean dauden toki batetik bestera egiten denean ere bai– ELGERen Erabakiaren mende dagoen hirugarren estatu bat edo batzuk igaro eta hondakinak balorizatu nahi direlako, 9. artikuluan aipatutako baimena isilbidez eman ahal izango da, eta, kontrako arrazoirik eman ezik edo baldintzarik zehaztu ezik, lekualdaketa 30 eguneko epean hasi ahal izango da, bidalketako agintari eskudunak hartu-agiria igortzen duen egunetik hasita, 8. artikuluari jarraiki.

III. TITULUA

ESTATU KIDEEN BARRUAN BAIZIK EGINGO EZ DIREN LEKUALDAKETAK

33. artikulua

Erregelamendu hau estatu kideen barruan baizik egiten ez diren lekualdaketei aplikatzea

1. Estatu kideek araubide egokia ezarriko dute beren jurisdikzioaren barruan baizik egiten ez diren hondakinen lekualdaketa zaintzeko eta kontrolatzeko. Araubide horrek kontuan izan beharko du koherentzia izan behar duela II. eta VII. tituluek ezartzen duten erkidegoko araubidearekin.

2. Estatu kideek hondakinen lekualdaketa zaintzeko eta kontrolatzeko araubidearen berri emango diote Batzordeari. Batzordeak gainerako estatu kideei jakinaraziko die.

3. Estatu kideek II. eta VII. tituluetan ezarritako araubidea aplikatu ahal izango dute beren jurisdikzioan.

IV. TITULUA

ERKIDEGOAK HIRUGARREN ESTATUETARA EGINDAKO ESPORTAZIOAK

1. KAPITULUA

Ezabatu nahi diren hondakinak esportatzea

34. artikulua

Esportatzeko debekua, EFTAko (Europako Merkataritza Askeko Elkarteko) estatuetera izan ezik

1. Debekatuta dago Erkidegotik hondakinak esportatzea ezabatzeko xedez.
2. Lehen paragrafoko debeku hori ez zaie aplikatuko Basileako Hitzarmena sinatu duten eta EFTAkoak diren estatuetera ezabatu nahi diren hondakinen esportazioei.
3. Alabaina, era berean debekatuta dago Basileako Hitzarmena sinatu duten eta EFTAkoak diren estatuetera ezabatu nahi diren hondakinak esportatzea, honako kasu hauetan:
 - a) EFTAko estatuak hondakin horien inportazioa debekatu duenean.
 - b) Bidalketako agintari eskudunak arrazoiz uste badu hondakinak ez direla ingurumen-aldetik modu egokian kudeatuko helmugako estatuan, alegia, 49. artikulua xedatutakoa betez.
4. Xedapen honek ez die kalterik egingo 22. eta 24. artikuluetan hondakinak itzultzeko ezarritako betebeharrei.

35. artikulua

EFTAko estatuetera egindako esportazioei ezarri ahal zaizkien prozedurak

1. Hondakinak Erkidegotik esportatzen direnean Basileako Hitzarmena sinatu duten EFTAko estatuetera ezabatu nahi direlako, II. tituluko xedapenak *mutatis mutandis* aplikatuko dira, 2. eta 3. paragrafoetan zehaztutako egokitzapenak eta xedapen gehigarriak aintzat hartuta.
2. Egokitzapen hauek egingo dira:
 - a) ELGEren Erabakiaren mende ez dagoen estatuko igarotzeko agintari eskudunak 60 eguneko epea izango du, jakinarazpenaren hartu-agiria igortzen denetik hasita, informazio gehigarria eskatzeko jakinarazitako lekualdaketari buruz, isilbidezko baimena emateko dena delako estatuak erabaki badu ez dela beharrezkoa bere aurretiazko eta idatzizko baimena izatea, eta horren berri eman badie tartean dauden gainerako alderdiei, Basileako Hitzarmenak 6. artikuluan 4. paragrafoan ezarritakoarekin bat, eta, orobat, idatzizko baimena emateko, baldintzak jarri edo baldintzarik jarri gabe.
 - b) ELGEren Erabakiaren mende ez dagoen estatuko bidalketako agintari eskudunak 9. artikuluan aipatutako lekualdaketa baimentzeko erabakia hartuko du, ELGEren Erabakiaren mende ez dagoen estatuko igarotzeko agintari eskudunaren

isilbidezko edo idatzizko baimena jaso ondoren, eta, betiere, igarotzeko agintari eskudunak hartu-agiria igorri, eta 61 egun igarotakoan. Bidalketako agintari eskudunak erabakia hartu ahal izango du 61 eguneko epea bukatu aurretik, tartean dauden gainerako agintari eskudunak idatzizko baimena ematen badiote.

3. Xedapen gehigarri hauek aplikatuko dira:
 - a) Erkidegoko igarotzeko agintari eskudunak jakinarazpenaren hartu-agiria igorri beharko dio jakinarazleari.
 - b) Bidalketako agintari eskudunak eta, hala behar denean, Erkidegoko igarotzeko agintari eskudunak lekualdaketa baimentzeko erabakiaren kopia zigilatua bana bidaliko diete Erkidegoko esportazioko aduana-bulegoari eta irteerako aduana-bulegoari.
 - c) Garraiolariak mugimendu-agiriaren kopia bana emango die Erkidegoko esportazioko aduana-bulegoari eta irteerako aduana-bulegoari.
 - d) Hondakinak erkidegotik atera bezain laster, Erkidegoko irteerako aduana-bulegoak mugimenduaren agiriaren kopia zigilatua bidaliko dio bidalketako agintari eskudunari eta, horren bidez, aditzera emango dio hondakinak Erkidegotik atera direla.
 - e) Instalazioak Erkidegoko bidalketako agintari eskudunari jakinarazten ez badio hondakinak jaso dituela, 42 eguneko epean, hondakinak erkidegotik atera diren egunetik hasita, agintari horrek berehala adieraziko dio helmugako agintari eskudunari.
 - f) Laugarren artikuluan 4. puntuko 2. paragrafoan eta, orobat, 5. artikuluan aipatutako kontratuan honako hau xedatu beharko da:
 - i) Instalazioak ezabatzeko ziurtagiri okerra egiten bada eta, hortaz, fidantza askatzen bada, jasotzaileak ordaindu beharko ditu hondakinak bidalketako agintari eskudunaren jurisdikzio-aldera itzultzeak eragindako gastuak eta, era berean, hondakinak ingurumen-aldetik egokia den beste modu batez balorizatzeko edo ezabatzeko jarduerak sortarazitako gastuak.
 - ii) Ezabatu nahi diren hondakinak jaso, eta hiru eguneko epean, instalazioak behar bezala betetako mugimendu-agiriaren kopia sinatu bana bidaliko die jakinarazleari eta tartean dauden agintari eskudunei, iii) puntuan aipatutako ezabaketaren ziurtagiria alde batera utzita.
 - iii) Instalazioak ondo bermatu beharko du hondakinak bere erantzukizunaren pean eta ahalik eta arinen ezabatu dituela, baina gehien jota 30 eguneko epean, ezabatzeko jarduera bukatzen denetik hasita, edo urtebete zibileko

epean, hondakinak jasotzen direnetik hasita; era berean, ziurtagiri hori jasota duen mugimendu-agiriaren kopia sinatuak bidaliko dizkie jakinarazleari eta tartean dauden agintari eskudunei.

4. Lekualdaketa honako kasu hauetan baizik ezin izango da egin:

- a) Jakinarazleak Erkidegotik kanpoko bidalketako, helmugako eta, hala behar denean, igarotzako agintari eskudunen idatzizko baimena jaso badu, eta, betiere, finkatutako baldintzak betetzen badira.
- b) Jakinarazleak eta jasotzaileak kontratu eraginkorra egin badute, 4. artikulua 4. puntuko bigarren lerrokadan ezarritakoari eta 5. artikuluari jarraiki.
- c) Fidantza edo aseguru baliokide eraginkorra eratu bada, 4. artikulua 5. puntuko bigarren lerrokadan ezarritakoari eta 6. artikuluari jarraiki.
- d) Ingurumen-aldetik zuzena izango den kudeaketa bermatzen bada, 49. artikuluan xedatutakoaren arabera.

5. Hondakinak esportatzen direnean, ezabatzeko jarduerak egingo dira haiekin helmugako estatuan horretan aritzen den edo horretarako baimena duen instalazio batean, ezar daitekeen estatuko legeriarekin bat etorrita.

6. Esportazioko aduana-bulego batek edo Erkidegoaren irteerako bulego batek legezkoa ez den lekualdaketa bat atzematen badu, horren berri jakinaraziko dio berehala aduana-bulegoaren estatuko agintari eskudunari, eta agintari horrek honakoa egin beharko du:

- a) Berehala jakinaraziko dio Erkidegoko bidalketako agintari eskudunari.
- b) Behar bezala bermatuko du hondakinak geldiarazita egongo direla, harik eta bidalketako agintari eskudunak bestelakorik erabakitzen duen arte eta hondakinak geldiarazita dauden aduana-bulegoko estatuko agintari eskudunari idatziz jakinarazten dion arte.

2. KAPITULUA

Balorizatu nahi diren hondakinak esportatzea

1. Atala

ELGEren Erabakia bete behar ez duten estatuetara hondakinak esportatzea

36. artikulua

Esportazioen debekua

1. Debekatuta dago hondakin hauek Erkidegotik ELGEren Erabakiaren mende ez dauden estatuetara esportatzea balorizatzeke:

- a) V. eranskinean zerrendatutako hondakin arriskutsuak.
- b) V. eranskinaren 3. zatian zerrendatutako hondakinak.
- c) V. eranskineko berariazko kategoria batean sailkatuta ez dauden hondakin arriskutsuak.
- d) Hondakin arriskutsuen nahasketak, eta hondakin arriskutsuen eta V. eranskineko berariazko kategoria batean sailkatuta ez dauden eta arriskutsuak ez diren hondakinen nahasketak.
- e) Basileako Hitzarmenaren 3. artikulua arabera, jakinarazpen batean helmugako estatuan hondakin arriskutsu gisa sailkatu dituen hondakinak.
- f) Helmugako estatuan inportatzea debekatuta dauden hondakinak.
- g) Bidalketako agintari eskudunaren ustez, 49. artikulua xedatutakoa betez helmugako estatuan ingurumen-aldetik modu egokian kudeatuko ez diren hondakinak.

2. Xedapen honek ez die kalterik egingo 22. eta 24. artikuluetan hondakinak itzultzeko ezarritako betebeharreri.

3. Estatu kideek behar diren xedapenak eman ahal izango dituzte, salbuespenezko kasuetan eta jakinarazleak era egokian aurkeztutako frogagiriak oinarritzat harturik, ondo zehaztu ahal izateko V. eranskinean aipatutako hondakin arriskutsu jakin bat ez dagoela esportatzeko debekuaren mende, agerian ez bada 91/689/EEE Zuzentarauak III. eranskinean adierazitako ezaugarriak, betiere, kontuan izanik, eranskin horretako H3tik H8ra bitarteko eta H10 eta H11 ezaugarriei dagokienez, Batzordearen 2000ko maiatzaren 3ko 2000/532/EE Erabakiak finkatutako muga-balioak. Izan ere, Erabaki horrek ordezkatzeko, batetik, 94/ 3/EE Erabakia, hau da, Europako Kontseiluaren 75/442/EEE Zuzentarauak –hondakinei buruzkoa denak– 1. artikulua a) idatz-zatiari jarraiki hondakinen zerrenda bat finkatzen duena, eta, bestetik, Europako Kontseiluaren 94/904/EE Erabakia, alegia, Europako Kontseiluaren 91/689/EEE Zuzentarauak –hondakin arriskutsuei buruzkoa denak– 1. artikulua 4. paragrafoari jarraiki hondakin arriskutsuen zerrenda bat finkatzen duena⁽¹⁾.

4. Hondakin bat V. eranskinean hondakin arriskutsu gisa jaso ez bada ere, edo V. eranskinaren 1. zatiko B zerrendan jasota badago ere, salbuespenezko kasuetan arriskutsutzat joko da, eta,

¹ 226 EO L, 2000-09-06, 3. or. Azken buruan, 2001/573/EE Erabakiak (EO L 203, 2001-07-28, 18. or.) aldatu zuen Erabakia.

horrenbestez, bera esportatzeko debekua bete beharko da, 91/689/EEE Zuzentarauak III. eranskinean zehaztutako ezaugarriren bat baldin badu, betiere, kontuan izanik Batzordearen 2000/532/EE Erabakiak -91/689/EEE Zuzentarauak 1. artikulua 4. paragrafoko bigarren marran eta Erregelamendu honek III. eranskinean ezarri duten arabera-finkatu dituen muga-balioak, V. eranskineko H3tik H8ra arteko, eta H10 eta H11 ezaugarriei dagokienez.

5. Bestalde, 3. eta 4. paragrafoetan ezarritako kasuetan, estatu kideak hondakina esportatu nahi den estatuari jakinaraziko dio erabakia hartu aurretik. Estatu kideek kasu horien berri emango diote Batzordeari urte zibila bukatu aurretik. Batzordeak informazio hori jakinaraziko die estatu kide guztiei eta Basileako Hitzarmeneko Idazkaritzari. Emandako informazioaren arabera, Batzordeak oharrak egin ahal izango ditu, eta, hala behar denean, V. eranskina 58. artikulua arabera egokituko du.

37. artikulua

III. edo IIIA eranskinetan aipatutako hondakinen esportazioei ezarri ahal zaizkien prozedurak

1. Hondakinak III. edo IIIA eranskinetako zerrendetan agertzen badira eta, 36. artikulua arabera, horien esportazioa debekatuta ez badago, Erregelamendu hau indarrean sartu eta 20 eguneko epean, Batzordeak eskaera bana bidaliko die idatziz ELGeren Erabakia bete behar ez duten estatuei, eta hau eskatuko die:

- i) Estatu horretan balorizazio-jarduerak egiteko Erkidegotik hondakinak esportatu ahal izango direla baieztatzen duen idazkia.
- ii) Hala behar denean, helmugako estatuan hondakinak izango duen kontrol-prozedura.

ELGeren Erabakia bete behar ez duten estatuek, berriz, aukera hauek izango dituzte:

- a) Debekua.
- b) Aurretiazko jakinarazpenaren eta baimenaren idatzizko prozedura, 35. artikuluari jarraiki.
- c) Helmugako estatuan kontrolik ez egotea.

2. Erregelamendu hau ezarri aurretik, Batzordeak erregelamendu bat onetsiko du eta, horren bidez, 1. paragrafoaren bidez jasotako erantzun guztiak aintzat hartuko ditu eta ezarritako Batzordeari jakinaraziko dio, 2006/12/EE Zuzentarauaren 18. artikuluari jarraiki.

Estatu batek 1. paragrafoan aipatutako baieztapena eman ez badu, edo, arrazoi bat edo beste tartean dela, estatu batekin harremanetan jarri ez bada, 1. paragrafoko b) idatz-zatia aplikatuko da.

Batzordeak aldizka eguneratuko du onetsi den erregelamendua.

3. Estatu batek erantzunean adierazten badu hondakinen lekualdaketa batzuei ez dietela inolako kontrolik egiten, lekualdaketa horiei 18. artikulua ezarriko zaie *mutatis mutandis*.

4. Hondakinak esportatzen direnean, balorizazio-jarduerak egingo dira haiekin helmugako estatuan horretan aritzen den edo horretarako baimena duen instalazio batean, ezar daitekeen estatuko legeriarekin bat etorrira.

5. III. eranskineko kategoria zehatz batean sailkatuta ez dauden hondakinak lekualdatuz gero, edo III. eranskineko edota IIIA eranskineko kategoria zehatz batean sailkatuta ez dauden hondakinen nahasketak lekualdatuz gero, edo, era berean, III. eranskinean sailkatuta ez dauden hondakinak lekualdatuz gero, eta, betiere, esportazioa debekatuta ez badago 36. artikulua arabera, orduan, artikulua honetako 1. paragrafoko b) idatz-zatia aplikatuko da.

2. Atala

ELGeren Erabakia bete behar duten estatuetara hondakinak esportatzea

38. artikulua

III., IIIA, IIIB, IV. eta IVA eranskinetan aipatutako hondakinak esportatzea

1. Erkidegoak esportatzen dituen III., IIIA., IIIB., IV. eta IVA eranskinetan aipatutako hondakinak, sailkatu gabeko hondakinak edo III., IV. edo IVA eranskinetako kategoria jakin batean sailkatu ez diren hondakinen nahasketak, ELGeren Erabakia bete behar duten estatuen batean balorizatzeko -berdin dio, bitartean, hondakin horiek ELGeren Erabakia bete behar ez duten estatuen batetik igarotzen diren edo ez-, orduan, II. tituluko xedapenak *mutatis mutandis* aplikatuko dira, 2., 3. eta 5. paragrafoetan zehaztutako xedapen gehigarriak eta egokitzapenak aintzat hartuta.

2. Egokitzapen hauek egingo dira:

- a) Erdizka balorizatu edo ezabatu nahi diren IIIA eranskinean aipatutako hondakinen nahasketei dagokienez, aurretiazko idatzizko jakinarazpenaren eta baimenaren prozedura bete beharko da, erdizka edo betiko balorizatzeko edo ezabatzeko jardueraren bat ELGeren Erabakiaren mende ez dagoen estatu batean egiten bada.
- b) IIIB eranskinean zerrendatutako hondakinek aurretiazko eta idatzizko jakinarazpenaren eta baimenaren prozedura bete beharko dute.
- c) Bederatzigarren artikuluari jarraiki eskatzen den baimena Erkidegotik kanpoko helmugako agentari eskudunak emandako isilbidezko baimenaren bidez egin ahal izango da.

3. IV. eta IVA eranskinetan zerrendatutako hondakinen esportazioei dagokienez, xedapen gehigarri hauek ezarriko dira:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- a) Bidalketako agintari eskudunek eta, hala behar denean, Erkidegoko igarotzako agintari eskudunek lekualdaketa baimentzeko baimenaren kopia zigitatu bana bidaliko diete Erkidegoko esportazioko aduana-bulegoari eta irteerako aduana-bulegoari.
- b) Garraiolariak mugimendu-agiriaren kopia bana emango die Erkidegoko esportazioko aduana-bulegoari eta irteerako aduana-bulegoari.
- c) Hondakinak erkidegotik atera bezain laster, Erkidegoko irteerako aduana-bulegoak mugimendu-agiriaren kopia zigitatua bidaliko dio bidalketako agintari eskudunari eta, horren bidez, aditzera emango dio hondakinak Erkidegotik atera direla.
- d) Instalazioak Erkidegoko bidalketako agintari eskudunari jakinarazten ez badio hondakinak jaso dituela, 42 eguneko epean, hondakinak erkidegotik atera diren egunetik hasita, agintari horrek berehala adieraziko dio helmugako agintari eskudunari.
- e) Laugarren artikulua 4. puntuko 2. lerrokadaren eta, orobat, 5. artikuluan aipatutako kontratuan honako hau xedatu beharko da:
- i) Instalazioak balorizatzeko ziurtagiri okerra egiten badu eta, hortaz, fidantza askatzen bada, jasotzaileak ordaindu beharko ditu hondakinak bidalketako agintari eskudunaren jurisdikzio-aldera itzultzeak eragindakako gastuak eta, era berean, hondakinak ingurumen-aldetik egokia den beste modu batez balorizatzeko edo ezabatzeak jarduerak sortarazitako gastuak.
- ii) Balorizatu nahi diren hondakinak jaso, eta hiru eguneko epean, instalazioak behar bezala betetako mugimendu-agiriaren kopia sinatu bana bidaliko die jakinarazleari eta tartean dauden agintari eskudunei, iii) puntuari aipatutako balorizazioko ziurtagiria alde batera utzita.
- iii) Instalazioak ondo bermatu beharko du hondakinak bere erantzukizunaren pean eta ahalik eta arinen balorizatu dituela, baina gehien jota 30 eguneko epean, balorizatzeko jardura bukatzen denetik hasita, edo urtebete zibileko epean, hondakinak jasotzen direnetik hasita; era berean, ziurtagiri hori jasota duen mugimendu-agiriaren kopia sinatuak bidaliko dizkie jakinarazleari eta tartean dauden agintari eskudunei.
4. Lekualdaketa honako egoera hauetan baizik ezin izango da egin:
- a) Jakinarazleak bidalketako, helmugako eta, hala behar denean, igarotzako agintari eskudunek egindako idatzizko baimena jaso badu; edo bidalketako, helmugako eta, hala behar denean, igarotzako agintari eskudunen baimen hori isilbidez eman dela jo ahal bada, eta, betiere, finkatuta dauden baldintzak betetzen badira.
- b) 35. artikulua 4. paragrafoaren b), c) eta d) idatziztatian xedatu duena betetzen bada.
5. IV. eta IVA eranskinetan aipatutako hondakinei dagokien eta 1. paragrafoan deskribatu den esportazioa ELGEren Erabakiaren mende ez dagoen estatu batetik igarotzen denean, honako egokitzapen hauek egingo dira:
- a) ELGEren Erabakiaren mende ez dagoen estatuko igarotzako agintari eskudunak 60 eguneko epea izango du, jakinarazpenaren hartu-agiria igortzen denetik hasita, informazio gehigarria eskatzeko jakinarazitako lekualdaketa buruz, isilbidezko baimena emateko dena delako estatuak erabaki badu ez dela beharrezkoa bere aurretiazko eta idatzizko baimena izatea eta horren berri eman badie tartean dauden gainerako alderdiei, Basileako Hitzarmenak 6. artikulua 4. paragrafoan ezarritakoarekin bat, eta, orobat, idatzizko baimena emateko, baldintzak jarri edo baldintzarik jarri gabe.
- b) ELGEren Erabakiaren mende ez dagoen estatuko bidalketako agintari eskudunak 9. artikuluan aipatutako lekualdaketa baimentzeko erabakia hartuko du, ELGEren Erabakiaren mende ez dagoen estatuko igarotzako agintari eskudunaren isilbidezko edo idatzizko baimena jaso ondoren, eta, betiere, igarotzako agintari eskudunak hartu-agiria igorri, eta 61 egun igarotakoan. Bidalketako agintari eskudunak erabakia hartu ahal izango du 61 eguneko epea bukatu aurretik, tartean dauden gainerako agintari eskudunek idatzizko baimena ematen badiote.
6. Hondakinak esportatzen direnean, balorizazio-jarduerak egingo dira haiekin helmugako estatuan horretan aritzen den edo horretarako baimena duen instalazio batean, ezar daitekeen estatuko legeriarekin bat etorrita.
7. Esportazioko aduana-bulego batek edo Erkidegoko irteerako bulego batek legezkoa ez den lekualdaketa bat atzematzen badu, horren berri jakinaraziko dio berehala aduana-bulegoaren estatuko agintari eskudunari, eta agintari horrek honakoa egin beharko du:
- a) Berehala jakinaraziko dio Erkidegoko bidalketako agintari eskudunari.
- b) Behar bezala bermatuko du hondakinak geldiarazita egongo direla, harik eta bidalketako agintari eskudunak bestelakorik erabakitzen duen arte eta hondakinak geldiarazita dauden aduana-bulegoko estatuko agintari eskudunari idatziz jakinarazten dion arte.

3. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

39. artikulua

Antartidara hondakinak esportatzea

Debekatuta dago hondakinak esportatzea Erkidegotik Antartidara eramateko.

40. artikulua

Itsasoz haraindiko estatuetara edo lurraldeetara hondakinak esportatzea

1. Debekatuta dago Erkidegotik hondakinak esportatzea itsasoz haraindiko estatuetan edo lurraldeetan ezabatzeko.

2. Itsasoz haraindiko estatuetan edo lurraldeetan hondakinak ezabatzeko hondakinak esportatzeari dagokionez, 36. artikuluko debekua *mutatis mutandis* aplikatuko da.

3. Bestalde, 2. paragrafoko debekua bete behar ez duten itsasoz haraindiko estatuetan edo lurraldetan balorizatzeko hondakinak esportatzeari dagokionez, II. tituluko xedapenak *mutatis mutandis* aplikatuko dira.

V. TITULUA

**HIRUGARREN ESTATUETATIK
ERKIDEGORA HONDAKINAK
INPORTATZEA**

1. KAPITULUA

Ezabatu nahi diren hondakinak inportatzea

41. artikulua

Inportatzeko debekua, betiere, jatorria ez baldin bada Basileako Hitzarmenean sartuta dagoen estatu bat, harekin indarreko akordioa sinaturik ez badago, edo hondakinak krisialdian edo gerra-egoeran dagoen estatu batetik ez badatoz

1. Debekatuta dago Erkidegoan ezabatu nahi diren hondakinak inportatzea, honako salbuespen hauek alde batera utzita:

- a) Basileako Hitzarmena sinatu duten estatuetako hondakinak.
- b) Erkidegoarekin edo Erkidego eta haren estatu kideekin Erkidegoko Zuzenbidearekin bat datozen eta Basileako Hitzarmenaren 11. artikuluan xedatutako betetzen duten bi aldeko edo alde askotako akordioak edo konpromisoak eginda dituzten estatuetako hondakinak.
- c) Estatu kideekin, 2. paragrafoari jarraiki, bi aldeko akordioak edo konpromisoak banaka eginda dituzten bestelako estatuetako hondakinak.

- d) Beste alderdi batzuk, krisialdian, gerran, edota bakea berrezartzeko edo bakeari eusteko salbuespenezko arrazoiak direla-eta, alderdi horietan ezin badira b) edo c) idatz-zatietan aipatutako bi aldeko akordioak edo konpromisoak egin, edota bidalketako estatuan agintari eskudunak hautatu ez bada, edo agintari eskudun horrek ezin badu jardun.

2. Salbuespenezko kasuetan, estatu kideek bi aldeko akordioak edo konpromisoak banaka egin ahal izango dituzte estatu kide horietan hondakin jakin batzuk ezabatzeko, betiere, irizten baldin bada, 49. artikuluari jarraiki, bidalketako estatuan hondakin horiek ez direla ingurumen-aldeetik era egokian kudeatuko.

Akordio eta konpromiso horiek bateragarriak izango dira Erkidegoko Zuzenbidearekin, eta Basileako Hitzarmenaren 11. artikulua beteko dute.

Akordio eta konpromiso horiek ondo bermatu beharko dute hondakinak ezabatzeko jarduerak baimenduta dagoen instalazio batean egingo direla eta ingurumen-aldeetik zuzen kudeatzeko baldintzak beteko dituztela.

Era berean, akordio eta konpromiso horiek behar bezala bermatu beharko dute hondakinak bidalketako estatuan eginak izango direla, eta akordioa edo konpromisoa egin duen estatuak baizik ez dituela ezabatu.

Akordio edo konpromiso horiek Batzordeari jakinaraziko zaizkio, formalizatu aurretik. Alabaina, larrialdian, gehienez hilabeteko epean jakinarazi ahal izango dira, formalizatzen direnetik hasita.

3. Lehenengo paragrafoak b) eta c) idatz-zatietan xedatutakoari jarraiki formalizatzen diren bi aldeko edo alde askotako akordioak edo konpromisoak 42. artikuluko ezarritako prozedurako eskakizunetan oinarrituko dira.

4. Lehenengo paragrafoko a), b) eta c) idatz-zatietan aipatutako estatuei eskatuko zaie helmugako estatu kideko agintari eskudunari behar bezala arrazoitutako eskaera aurrez aurkezteko, eta eskaera horretan jasota uzteko, zentzuzko irizpideen arabera, ez dutela eta ezin dutela lortu hondakinak ingurumen-aldeetik era egokian ezabatzeko behar diren instalazioak eta gaitasun teknikoak.

42. artikulua

Basileako Hitzarmenean sartuta dauden edota krisialdian edo gerran dauden alderdian sartuta dauden beste alderdi batzuetatik iritsitako inportazioei ezarri ahal zaizkien prozedura-eskakizunak

1. Basileako Hitzarmena sinatu duten estatuetako hondakinak Erkidegoan inportatzen direnean ezabatu nahi direlako, II. tituluko xedapenak *mutatis mutandis* aplikatuko dira, 2. eta 3.

paragrafoetan zehaztutako egokitzapenak eta xedapen gehigarriak aintzat hartuta.

2. Egokitzapen hauek egingo dira:

a) ELGEren Erabakiaren mende ez dagoen estatuko igarotzako agintari eskudunak 60 eguneko epea izango du, jakinarazpenaren hartu-agiria igortzen denetik hasita, informazio gehigarria eskatzeko jakinarazitako lekualdaketari buruz, isilbidezko baimena emateko, dena delako estatuak erabaki badu ez dela beharrezkoa aurretiazko eta idatzizko baimena izatea, eta horren berri eman badie tartean dauden gainerako alderdiei, Basileako Hitzarmenak 6. artikulua 4. paragrafoan ezarritakoarekin bat, eta, orobat, idatzizko baimena emateko, baldintzak jarri edo baldintzarik jarri gabe.

b) 41. artikulua 1. paragrafoaren d) idatz-zatian aipatzen dituen kasuetan, hau da, krisialdian, gerran, edo bakea berrezartzeko edo bakeari eusteko egoeretan, ez da eskatuko bidalketaren eskumena duten agintarien baimena izatea.

3. Xedapen gehigarri hauek aplikatuko dira:

a) Erkidegoko agintari eskudunak jakinarazpenaren hartu-agiria igorri beharko dio jakinarazleari, eta, orobat, kopia bana bidali beharko die tartean dauden agintari eskudunei.

b) Helmugako agintari eskudunek eta, hala behar denean, Erkidegoko igarotzako agintari eskudunek lekualdaketa baimentzeko baimenaren kopia zigilatua bidaliko diote Erkidegoko sarrerako aduana-bulegoari.

c) Garraiolariak mugimendu-agiriaren kopia bat emango dio Erkidegoko sarrerako aduana-bulegoari.

d) Aduanan bete beharreko eskakizun guztiak egin ondoren, Erkidegoko sarrerako aduana-bulegoak mugimendu-agiriaren kopia zigilatua bidaliko die Erkidegoko bidalketako eta igarotzako agintari eskudunei, eta, horren bidez, aditzera emango die hondakinak Erkidegoan sartu direla.

4. Lekualdaketa honako egoera hauetan baizik ezin izango da egin:

a) Jakinarazleak Erkidegotik kanpoko bidalketako, helmugako eta, hala behar denean, igarotzako agintari eskudunen idatzizko baimena jaso badu, eta, betiere, finkatutako baldintzak betetzen baditu.

b) Jakinarazleak eta jasotzaileak kontratu eraginkorra egin badute, 4. artikulua 4. puntuko bigarren lerrokadan ezarritakoari eta 5. artikuluarri jarraiki.

c) Fidantza edo aseguru baliokide eraginkorra eratu bada, 4. artikulua 5. puntuko bigarren lerrokadan ezarritakoari eta 6. artikuluarri jarraiki.

d) Ingurumen-aldeetik zuzena izango den kudeaketa bermatzen bada, 49. artikuluan xedatutakoaren arabera.

5. Erkidegoko sarrerako aduana-bulego batek aurkitzen badu legezkoa ez den lekualdatze bat, berehala emango dio horren berri aduana-bulegoko estatuko agintari eskudunari, eta horrek honakoa bete beharko du:

a) berehala jakinaraziko dio Erkidegoko helmugako agintari eskudunari, eta agintari horrek Erkidegoko kanpoko bidalketako eskumena duen agintariari emango dio aditzera.

b) Behar bezala bermatuko du hondakinak geldiarazita egongo direla, harik eta Erkidegoko kanpoko bidalketako eskumena duen agintariak bestelakorik erabakitzen duen arte, eta hondakinak geldiarazita dauden aduana-bulegoko estatuan eskumena duen agintariari idatziz jakinarazten dioten arte.

2. KAPITULUA

Balorizatu nahi diren hondakinen inportazioa

43. artikulua

Inportatzeko debekua, betiere, jatorria ez baldin bada ELGEren Erabakiaren menpean dagoen edo Basileako Hitzarmenean sartuta dagoen estatu bat, harekin indarreko akordioa sinaturik ez badago, edo hondakinak krisialdian edo gerra-egoeran dagoen estatu batetik ez badatoz

1. Hondakinak balorizatzeko inportazioak debekatuta daude, betiere, hondakinen jatorria estatu hauekoren bat ez bada:

a) ELGEren erabakia bete behar duten estatuak.

b) Basileako Hitzarmenean sartuta dauden estatuak.

c) Erkidegoarekin, edo Erkidegoarekin eta kide diren estatuarekin bi aldeko edo alde askotako konpromisoak edo akordioak –Basileako Hitzarmenaren 11. artikuluan xedatutakoarekin bat datorrenak eta Erkidegoko Zuzenbidearekin bateragarriak direnak– eginda dituzten estatuak.

d) Bigarren paragrafoan ezarritakoa betez, estatu kideekin bi aldeko konpromisoak edo akordioak banaka eginda dituzten beste estatu batzuk.

e) Beste alderdi batzuk, krisialdian, gerran, edota bakea berrezartzeko edo bakeari eusteko salbuespenetzko arrazoiak direla-eta, alderdi horietan ezin badira b) edo c) idatz-zatietan aipatutako bi aldeko akordioak edo konpromisoak egin, edota bidalketako estatuan agintari eskudunik hautatu ez bada, edo agintari eskudun horrek ezin badu jardun.

2. Salbuespenezko kasuetan, estatu kideek bi aldeko akordioak edo konpromisoak egin ahal izango dituzte banaka estatu kide horietan hondakin jakin batzuk ezabatzeko, betiere, irizten ez bada, bidalketako estatuko 49. artikuluari jarraiki, hondakin horiek ez direla ingurumen-aldetik era egokian kudeatuko.

Kasu horietan 41. artikulua 2. paragrafoa ezarriko da.

3. Lehenengo paragrafoak c) eta d) idatz-zatietan xedatutakoaren arabera egindako bi aldeko edo alde askotako konpromisoak eta akordioak 42. artikulua ezarritako prozedura-eskakizunetan oinarrituta egongo dira, dagokien eran.

44. artikulua

ELGEren Erabakiaren menpean dauden, edota krisialdian edo gerran dauden beste alderdi batzuetatik iritsitako inportazioei ezarri ahal zaizkien prozedura-eskakizunak

1. ELGEren erabakia bete behar duten estatuetatik Erkidegoan balorizatzeko inportatu diren hondakinak badira, II. tituluko xedapenak *mutatis mutandis* ezarriko dira, 2. eta 3. paragrafoetan zehaztutako egokitzapen eta xedapen gehigarriak aintzat hartuta.

2. Egokitzapen hauek egingo dira:

- a) Erkidegotik kanpoko bidalketa-arloko agintari eskudunak emandako isilbidezko baimenaren bidez, 9. artikuluan eskatutako baimena eman ahal izango da.
- b) 4. artikuluan eskatutako aurretzako idatzizko jakinarazpena jakinarazleak aurkeztu ahal izango du.
- c) 43. artikulua 1. paragrafoaren e) idatz-zatian aipatzen dituen kasuetan, hau da, krisialdian, gerran edo bakea berrezartzeko edo bakeari eusteko egoeretan, ez da eskatuko bidalketaren eskumena duten agintarien baimena izatea.

3. Gainera, 42. artikulua 3. paragrafoa b), c) eta d) idatz-zatietan xedatutakoa bete beharko da.

4. Hondakinak honako kasu hauetan baizik ezin izango dira lekualdatu:

- a) Jakinarazleak bidalketako, helmugako eta, hala behar denean, igarotzeko eskumena duten agintarien idatzizko baimena jaso badu, edo Erkidegotik kanpoko bidalketako eskumena duen agintariaren isilbidezko baimena eman dela uste bada, eta ezarritako baldintzak betetzen badira.
- b) Jakinarazleak eta jasotzaileak kontratu eraginkorra egin badute, 4. artikulua 4. puntuko bigarren lerrokadan ezarritakoari eta 5. artikuluari jarraiki.

c) Fidantza edo aseguru baliokide eraginkorra eratu bada, 4. artikulua 5. puntuko bigarren lerrokadan ezarritakoari eta 6. artikuluari jarraiki.

d) Ingurumen-aldetik zuzena izango den kudeaketa bermatzen bada, 49. artikuluan xedatutakoaren arabera.

5. Erkidegoko sarrerako aduana-bulego batek legezkoa ez den lekualdatze bat aurkitzen badu, berehala emango dio horren berri aduana-bulegoko estatuko agintari eskudunari, eta horrek honakoa bete beharko du:

- a) Berehala jakinaraziko dio Erkidegoko helmugako agintari eskudunari, eta agintari horrek Erkidegoko kanpoko bidalketako eskumena duen agintariari emango dio aditzera.
- b) Behar bezala bermatuko du hondakinak geldiarazita egongo direla, harik eta Erkidegoko kanpoko bidalketako eskumena duen agintariak bestelakorik erabakitzen duen arte, eta hondakinak geldiarazita dauden aduana-bulegoko estatuan eskumena duen agintariari idatziz jakinarazten dioten arte.

45. artikulua

ELGEren Erabakiaren menpean ez dauden eta Basileako Hitzarmenean sartuta dauden, edota krisialdian edo gerran dauden beste alderdi batzuetatik iritsitako inportazioei ezarri ahal zaizkien prozedura-eskakizunak

Balorizatu nahi diren hondakinak Erkidegoan egindako inportazioak badira, hain zuzen:

- a) ELGEren Erabakia bete behar ez duen estatu batetik inportatu badira.
- b) ELGEren erabakia bete behar ez duen eta, gainera, Basileako Hitzarmenean sartuta dagoen estatu batetik inportatu badira.

Kasu horietan, 42. artikuluko xedapenak *mutatis mutandis* aplikatuko dira.

3. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

46. artikulua

Itsasoz haraindiko estatuetatik edo lurraldeetatik iritsitako inportazioak

1. Itsasoz haraindiko estatuetatik edo lurraldeetatik iritsitako inportazioek, erkidegoan helmuga dutenek, II. tituluko xedapenak *mutatis mutandis* bete beharko dituzte.

2. Itsasoz haraindiko estatuak edo lurraldeak eta elkartuta dauden estatu kideek estatuko prozedurak aplikatu ahal izango dizkiete itsasoz

haraindiko estatu edo lurralde batetik etorri diren eta estatu kide horretan helmuga duten lekualdaketei.

3. Bigarren paragrafoaren mendean jartzen diren estatu kideek aplikatu dituzten estatuko prozeduren berri jakinaraziko diote Batzordeari.

VI. TITULUA

HIRUGARREN ESTATUETAN JATORRIA EDO HELMUGA DUEN ERKIDEGOKO IGAROTZA

1. KAPITULUA

Ezabatu nahi diren hondakinak igarotzea

47. artikulua

Ezabatu nahi diren hondakinak Erkidegotik igarotzea

Ezabatu nahi diren hondakinak estatu kide batetik edo batzuetatik lekualdatzen direnean, hirugarren estatu jatorria edo helmuga izanda, 42. artikuluko xedapenak *mutatis mutandis* aplikatuko dira, egokitzapen eta xedapen gehigarri hauek aintzat hartuta:

- a) Erkidegoko igarotzako lehenengo eta azken agintari eskudunek, hala behar denean, lekualdaketa baimentzeko erabakiaren kopia zigilatua bana edo, baimena isilbidez eman badute, hartu-agiriaren kopia bana bidaliko diete Erkidegoko sarrerako eta irteerako aduana-bulegoei, hurrenez hurren, 42. artikuluko 3. paragrafoa a) idatz-zatian ezarritakoa betez.
- b) Hondakinak Erkidegotik atera bezain azkar, Erkidegoko irteerako aduana-bulegoak mugimendu-agiriaren kopia zigilatua bidaliko die Erkidegoko igarotzako agintari eskudunei, eta, bertan, ondo jasota utziko dute hondakinak Erkidegotik atera direla.

2. KAPITULUA

Balorizatu nahi diren hondakinak igarotzea

48. artikulua

Balorizatu nahi diren hondakinak Erkidegotik igarotzea

1. Balorizatu nahi diren hondakinak estatu kide batetik edo batzuetatik lekualdatzen direnean, ELGEren Erabakiaren menpean ez dagoen estatu bat jatorria edo helmuga izanda, 47. artikulua *mutatis mutandis* aplikatuko da.

2. Balorizatu nahi diren hondakinak estatu kide batetik edo batzuetatik lekualdatzen direnean, ELGEren Erabakiaren menpean dagoen estatu bat jatorria edo helmuga izanda, 44. artikuluko xedapenak *mutatis mutandis* aplikatuko dira,

egokitzapen eta xedapen gehigarri hauek aintzat hartuta:

- a) Erkidegoko igarotzako lehenengo eta azken agintari eskudunek, hala behar denean, lekualdaketa baimentzeko erabakiaren kopia zigilatua bana edo, baimena isilbidez eman badute, hartu-agiriaren kopia bana bidaliko diete Erkidegoko sarrerako eta irteerako aduana-bulegoei, hurrenez hurren, 42. artikuluko 3. paragrafoa a) idatz-zatian ezarritakoa betez.
- b) Hondakinak Erkidegotik atera bezain azkar, Erkidegoko irteerako aduana-bulegoak mugimendu-agiriaren kopia zigilatua bidaliko die Erkidegoko igarotzako agintari eskudunei, eta, bertan, hondakinak Erkidegotik atera direla jasoko du.

3. Balorizatu nahi diren hondakinak estatu kide batetik edo batzuetatik lekualdatzen direnean, ELGEren Erabakiaren menpean ez dagoen estatu batetik edo batzuetatik ELGEren Erabakia bete behar duen estatu batera eramateko, edo alderantziz, ELGEren Erabakiaren menpean ez dauden estatu jatorria edo helmuga izanda, 42. artikuluko 1. paragrafoa ezarriko da, eta ELGEren Erabakia bete behar duten estatu jatorria edo helmuga izanda, 2. paragrafoa.

VII. TITULUA

BESTELAKO XEDAPENAK

1. KAPITULUA

Betebehar gehigarriak

49. artikulua

Ingurumenaren babesa

1. Ekoizleak eta jakinarazleak, eta, orobat, hondakinak lekualdatzeko edo balorizatzeko edota ezabatzekeo prozesuan sartuta dauden gainerako enpresek behar diren neurriak hartuko dituzte hondakinak lekualdatu, balorizatu edo ezabatu bitartean, lekualdatzen diren hondakinen kudeaketak arriskurik sorraraz ez dezan gizakien osasunean eta dena ingurumen-aldetik zuzen eta eraginkortasunez egin dadin. Bereziki, hondakinak Erkidegoaren barruan lekualdatzen badira, 2006/12/EE Zuzentarauak 4. artikuluan eta hondakinen arloan Erkidegoan dauden gainerako legeek ezarritako eskakizunak bete beharko dira.

2. Erkidegotik egiten diren esportazioei dagokienez, Erkidegoko bidalketako agintari eskudunak honakoa egin beharko du:

- a) Hondakinak esportatzeko jarduerak ingurumen-aldetik zuzen eta eraginkortasunez egin daitezzen eskatuko du, eta hori bermatzen ahaleginduko da, lekualdatzeko eta balorizatzeko prozesu osoan 36. eta 38. artikuluetan ezarritakoa betez, eta ezabatzekeo prozesuan, berriz, 34. artikuluan ezarritakoari jarraiki, helmugako estatuan.

- b) Hirugarren estatuei hondakinak esportatzea debekatuko du, hondakin horiek a) idatz-zatiaren arabera behar bezala kudeatuko ez direla pentsatzeko arrazoiren bat badu.

Hondakinak ingurumen-aldetik zuzen eta eraginkortasunez kudeatzeko eskakizuna, balorizatzeko edo ezabatze jarduerari dagokionez, behar bezala bete dela joko da, baldin eta jakinarazleak edo helmugako estatuko agintari eskudunak frogatzen badute hondakinak hartuko dituen instalazioak gizakien osasuna eta ingurumena babesteko arauak –oro har, Erkidegoko legerian ezarritako arauen baliokideak direnak– betez funtzionatuko duela.

Alabaina, presuntzio horrek ez du aurretik juzgatu ingurumen-aldetik zuzen eta eraginkortasunez egindako kudeaketaren ebaluazio orokorra, hondakinak lekualdatzen diren bitartean, helmugako estatuan balorizatzeko edo ezabatze egiten diren jarduerak barne hartuta.

Kudeatze-lana ingurumen-aldetik zuzen eta eraginkortasunez egite aldera, kontuan har daitezke VIII. eranskinean aipatzen diren jarraibideak.

3. Erkidegoan egiten diren inportazioei dagokienez, Erkidegoko helmugako agintari eskudunak honakoa egin beharko du:

- a) Behar diren neurriak eskatuko eta hartuko ditu, bere jurisdikzio-esparrura eramandako hondakinen kudeaketak gizakien osasuna arriskuan jarriko ez duela bermatzeko eta ingurumenari kalte egin diezaioketen prozesuak edo metodoak erabiliko ez direla egiaztatze, 2006/12/EE Zuzentarauak 4. artikuluan eta hondakinen arloko Erkidegoko gainerako legeriek xedatutakoa betez, hondakinak lekualdatu bitartean, helmugako estatuan hondakinak balorizatzeko edo ezabatze egiten beharrezko prozesuak barne hartuta.
- b) Hirugarren estatuetatik hondakinak inportatzea debekatuko du, hondakin horiek a) idatz-zatiaren arabera behar bezala kudeatuko ez direla pentsatzeko arrazoiren bat badu.

50. artikulua

Estatu kideetako neurri betearazleak

1. Estatu kideek zehaztuko dituzte Erregelamendu honetako xedapenak hautsiz gero ezarri beharko diren xehapenei buruzko arauak, eta behar diren neurri guztiak hartuko dituzte arau horiek beteko direla bermatzeko. Ezarritako xehapenek eraginkorrak, neurrizkoak eta disuasiozkoak izan beharko dute. Estatu kideek legezkoak ez diren lekualdaketa atzemateko eta prebenitzeko arloan estatuan dagoen legeria jakinaraziko diote Batzordeari, bai eta lekualdaketa horiei ezarri ahal zaizkien xehapenak ere.

2. Estatu kideek, Erregelamendu hau betearazteko neurrien bidez, besteak beste, xedatuko dute establezimenduetan eta enpresetan ikuskapenak egitea, 2006/12/EE Zuzentarauaren 13. artikuluari jarraiki, eta, orobat, hondakinak lekualdatzeko edo behar bezala balorizatzeko edota ezabatze jarduerak bertatik bertara kontrolatzea.

3. Kontrolak toki hauetan egin ahal izango dira bereziki:

- a) Jatorrizko tokian, ekoizlearekin, edukitzailearekin edo jakinarazlearekin.
- b) Helmugan, jasotzailearekin edo instalazioarekin.
- c) Erkidegoaren kanpoko mugetan.
- d) Erkidegoaren barnetik lekualdatu bitartean.

4. Lekualdaketa kontrolatzean, agiriak ikuskatuko dira, nortasuna egiaztatuko da, eta, hala behar denean, hondakinen kontrol fisikoa ere egingo da.

5. Estatu kideak alde biko edo alde askotako lankidetzan arituko dira elkarren artean, legezkoak ez diren lekualdaketa prebenitzeko eta atzemateko.

6. Estatu kideek 5. paragrafoan aipatutako lankidetzaren ardura izango duten langile iraunkorrak identifikatuko dituzte, eta 4. paragrafoan aipatutako kontrol fisikoa guneak ere bai. Informazio hori Batzordeari bidaliko diote, eta Batzordeak zerrenda bat prestatuko du jasotako informazioarekin, eta 54. artikuluan aipatutako delegatuei banatuko die.

7. Beste estatu kide batek hala eskatzen badu, estatu kideek neurri betearazleak hartu ahal izango dituzte beren lurraldekoak diren eta legezkoak ez diren hondakinen lekualdaketen legez kanpoko trafikatzailen aurka.

51. artikulua

Estatu kideen txostenak

1. Urte zibila bukatu aurretik, estatu kideek aurreko urte zibilari buruzko txostenaren kopia bidaliko diote Batzordeari; 13. artikuluan 3. paragrafoari jarraiki, txosten hori Hitzarmenaren Idazkaritzari aurkeztuko diote lehenik.

2. Urte zibila bukatu aurretik, estatu kideek aurreko urteari buruzko txosten bat prestatuko dute, IX. eranskinean sartutako galdetegi osagarrian oinarrituta, eta Batzordeari bidaliko diote gero.

3. Estatu kideek 1. eta 2. paragrafoei jarraiki prestatutako txostenak Batzordeari aurkeztu zaizkio euskarri informatikoan.

4. Batzordeak, txosten horiek oinarritzat hartuta, hirurteko txostenak prestatuko ditu, Erkidegoak eta Erkidegoko kideek Erregelamendu hau aplikatzeko moduari buruz.

52. artikulua

Nazioarteko lankidetzaren

Estatu kideak eta, hala behar denean eta egokia denean, Batzordea lankidetzaren arituko dira Basileako Hitzarmenean sartuta dauden beste alderdiekin eta nazioarteko erakundeekin, besteak beste, informazioa trukatzeko eta bateratuz, ingurumen-aldetik egokiak diren teknologiak abian jarri, eta jarduteko kode egokiak garatu.

53. artikulua

Agintari eskudunak hautatzea

Estatu kideek agintari eskudunak hautatuko dituzte Erregelamendu hau ezartzeko ardura har dezaten. Estatu kide bakoitzak agintari eskudun bat hautatuko du, igarotzeko arloaren ardura izan dezan.

54. artikulua

Delegatuak hautatzea

Estatu kide bakoitzak eta, era berean, Batzordeak delegatu bat edo batzuk hautatuko dituzte, eta delegatu horiek informazioa eta orientabidea eman beharko dizkiete informazioa eskatzen duten pertsonen edo enpresei. Batzordeko delegatuak egiten dizkieten galdera guztiak bidaliko dizkie estatu kideetako delegatuei, betiere, galderak delegatu horien eskumeneko esparrukoak badira, eta alderantziz.

55. artikulua

Erkidegoaren sarrerako eta irteerako aduana-bulegoak hautatzea

Estatu kideek sarrerako eta irteerako aduana-bulego bereziak hautatu ahal izango dituzte, Erkidegora sartzen eta bertatik ateratzen diren hondakinak lekualdatzeko. Estatu kideek erabakitzen badute aduana-bulego horiek hautatzea, ez da baimenik emango estatu kideetako muga-postuetatik hondakinak lekualdatzeko, ez Erkidegora sartzeko, ez eta bertatik ateratzeko ere.

56. artikulua

Hautapenen jakinarazpena eta horri buruzko informazioa ematea

1. Estatu kideek hautapenen berri jakinaraziko diote Batzordeari; hona hemen hautapenak:

- a) Agintari eskudunak, 53. artikuluari jarraiki egindakoak.
- b) Delegatuak, 54. artikulua arabera egindakoak.
- c) Hala behar denean, Erkidegoaren sarrerako eta irteerako aduana-bulegoak, 55. artikulua arabera egindakoak.

2. Estatu kideek urtero jakinaraziko diote Batzordeari hautapen horiei buruzko datu hauek:

- a) izena;
- b) posta-helbidea;
- c) posta elektronikoa;
- d) telefono-zenbakia;
- e) fax-zenbakia, eta
- f) agintari eskudunentzat onargarri diren hizkuntzak.

3. Estatu kideek berehala jakinaraziko dizkiete Batzordeari datu horietan egon litezkeen aldaketak guztiak.

4. Datu horiek eta horietan egindako aldaketak guztiak Batzordeari aurkeztuko zaizkio euskarri informatikoan eta inprimatuta, hala eskatzen baldin bada.

5. Batzordeak web-orrian emango ditu argitara hautatzen dituen Erkidegoaren irteerako eta sarrerako aduana-bulegoen, agintari eskudunen eta delegatuen zerrendak, eta hala behar denean gaurkotuko ditu.

2. KAPITULUA

Beste xedapen batzuk

57. artikulua

Delegatuen bilera

Batzordeak bilerak egingo ditu aldi berean behin delegatuekin, estatu kideek hala eskatzen dutenean edo egoki iruditzen zaionean, hartara, Erregelamendu hau ezartzean ager daitezkeen zalantzak aztertzeko. Estatu kide guztiak eta Batzordeak bat etortzen direnean, alde interesdunei gonbit egingo zaie bilera horietan edo horietako batzuetan parte har dezaten.

58. artikulua

Eranskinak aldatzea

1. Batzordeak Erregelamendu honen eranskinak aldatu ahal izango ditu, aurrerapen zientifiko eta teknikoaren arabera egokitzeko, erregelamenduen bidez, eta, betiere, 2006/ 12/EE Zuzentarauak 18. artikulua 3. paragrafoan jasotako prozedura betez. Halaber:

- a) I., II., III., IIIA, IV. eta V. eranskinak aldatuko dira, Basileako Hitzarmenean eta ELGEren Erabakian adostutako aldaketak sartzeko. Horrez gain, I. eranskinaren C zatia, jakinarazpenaren eta mugimenduaren agiriak betetzeko jarraibide bereziak dituen, ondo bete beharko da, ELGEren jarraibideak aintzat hartuta, eta, gehien jota, Erregelamendu hau ezartzen den uenean.

- b) Sailkatu gabeko hondakinak IIIB, IV. edo V. eranskinetan sartu ahal izango dira behin-behinean, Basileako Hitzarmenaren edo ELGERen Erabakiaren eranskinetan sartzeko edo ez sartzeko erabakia hartzen den arte.
- c) Estatu kide batek horrela eskatzen badu, III. eranskinetan zerrendatutako bi hondakin edo gehiagoren nahasketak IIIA eranskinetan sartu ahal izango dira, 3. artikulua 2. paragrafoan jasotako kasuetan eta behin-behinean, Basileako Hitzarmenaren edo ELGERen Erabakiaren eranskinetan sartzeko edo ez sartzeko erabakia hartzen den arte. IIIA eranskinaren barnean sartzen diren lehen edukiak, ahal dela, Erregelamendu hau aplikatu aurretik gaineratuko dira, eta, nolana ere, gehienez sei hilabeteko epean sartu beharko dira, egun horretatik hasita. Salbuespen gisa, IIIA eranskinetan gaineratutako eduki bat edo batzuk ez zaizkie aplikatuko ELGERen Erabakiaren mende ez dauden estatuetara bidaltzen diren esportazioei.
- d) Hirugarren artikulua 3. paragrafoan aipatzen diren salbuespenezko kasuak ondo zehaztuko dira, eta, hala behar denean, hondakin horiek IVA eta V. eranskinetan sartuko dira eta III. eranskinetik kenduko dira.
- e) Bestalde, V. eranskina aldatuko da, 91/689/EE Zuzentarauak 1. artikulua 4. paragrafoan ezarritakoaren arabera adostutako hondakin arrisksuen zerrendan egindako aldaketak sartzeko aldera.
- f) Era berean, VIII. eranskina aldatuko da, nazioarteko hitzarmen eta akordio egokiak ezarritakoa jasotzeko.
2. IX. eranskina aldatu nahi denean, Europako Kontseiluak 1991eko abenduaren 23an emandako 91/692/EE Zuzentarauaren bitartez sortutako komitea eztabaidei loturik egongo da erabat (Zuzentaru hori ingurumenari lotutako zuzentaru jakin batzuk aplikatzeko txostenak normalizatzeari eta arrazionalizatzeari buruzkoa da).⁽¹⁾
3. 1999/468/EE Erabakiaren 5. artikuluko 6. paragrafoan jasotako epea hiru hilabetekoa izango da.

59. artikulua

Neurri gehigarriak

1. Batzordeak neurri gehigarriak hartu ahal izango ditu Erregelamendu honen aplikazioari begira, hain zuzen, honako hauek:
- a) Fidantzak edo aseguru baliokideak kalkulatzeko metodo bat, 6. artikuluan ezarritako moduan.

¹ 377 EO L, 1991-12-31koa, 48. or. Azken buruan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1882/2003 Erregelamenduak [EE] (284 EO L, 2003-10-31koa, 1. or.) aldatu zuen Zuzentaraua.

- b) 12. artikulua 1. paragrafoko g) idatz-zatia ezartzeko gidalerroak.
- c) Baldintza eta eskakizun gehiago, 14. artikulua aipatzen duen aurretiazko baimena duten hondakinak balorizatzeko instalazioei buruz.
- d) Hamabosgarren artikulua ezartzeko gidalerroak, balorizatzean edo erdizka ezabatzean aldaketa larriak dituzten hondakinak identifikatzeari eta haien jarraipena egiteari dagokionez.
- e) Agintari eskudunek legezkoak ez diren lekualdaketetan lankidetzaren emateko zuzentarauak, 24. artikuluan ezarritako moduan.
- f) Agiriak eta informazioa 26. artikulua 4. paragrafoaren arabera aurkezteko datuen truke elektronikoa ezartzeko eskakizun teknikoak eta antolakuntzako baldintzak.
- g) Hizkuntzen erabilerari buruzko gidalerro gehiago, 27. artikulua aipatutakoaren ildoan.
- h) Bigarren tituluko prozedurako eskakizunei buruzko argibide gehiago, Erkidegoan sorburua edo helmuga duten edota erkidegotik doazen hondakinen esportazioei, inportazioei eta igarotzari dagokienez.
- i) Zehaztu gabeko baldintza juridikoei buruzko gidalerro gehiago.
2. Neurri horiek erabakiko dira 2006/12/EE Zuzentarauak 18. artikulua 3. paragrafoan jasotako prozedurari jarraiki.
3. 1999/468/EE Erabakiaren 5. artikuluko 6. paragrafoan jasotako epea hiru hilabetekoa izango da.

60. artikulua

Berraztertzea

1. Gehienez ere 2006ko uztailaren 15ean, Batzordeak buru emango dio osasun publikoaren eta animalien osasunari buruzko sektoreko legeriaren artean dagoen harremanaren berrazterketari, 1774/2002 (EE) Erregelamenduak eta Erregelamendu honetako xedapenek arautzen dituzten hondakinen lekualdaketa barne hartuta. Hala behar izanez gero, berrazterketa horrekin batera, proposamen egokiak egingo dira, hartara, hondakin horiek lekualdatzeko kontrol-araubidea eta prozeduren maila baliokideak izan daitezten.
2. Bost urteko epean, 2007ko uztailaren 12tik hasita, Batzordeak ondo begiratuko du 12. artikulua 1. paragrafoko c) idatz-zatia betetzen den, besteak beste, ingurumena babesteko arloan eta barneko merkatuaren funtzionamenduan duen eragina aztertze aldera. Hala behar bada, berrazterketa horrekin batera, xedapen hori aldatzeko proposamen egokiak aurkeztuko dira.

61. artikulua

Indargabetzeak

1. 259/93 (EEE) Erregelamendua eta 94/774/EE Erabakia 2007ko uztailaren 12tik aurrera indargabetuko dira.
2. Indargabetutako 259/93 (EEE) Erregelamenduari egindako aipamenak Erregelamendu honi dagozkiola joko da.
3. 94/774/EE Erabakia 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera indargabetuko da.

62. artikulua

Xedapen iragankorrak

1. Behar bezala jakinarazitako hondakinen lekualdaketei dagokienez, helmugako agintari eskudunak lekualdaketa horiei dagokien hartu-agiria 2007ko uztailaren 12a iritsi aurretik eman badu, lekualdaketa horrek 259/93 (EEE) Erregelamenduaren xedapenak bete beharko ditu.
2. 259/93 (EEE) Erregelamenduarekin bat etorrita agintari eskudunen baimena jaso duten hondakinak, gehienez ere, urtebeteko epean lekualdatu beharko dira, 2007ko uztailaren 12tik aurrera.
3. 259/93 (EEE) Erregelamenduak 41. artikuluan 2. paragrafoan xedatutakoari eta 2007. urteari dagokionez Erregelamendu honek 51. artikuluan ezarritakoari jarraiki egindako txostenek 1999/412/EE Erabakiak duen galdetegia hartu beharko dute oinarritzat.

63. artikulua

Estatu kide jakin batzuei aplikatu ahal zaizkien neurri iragankorrak

1. 2010. urteko abenduaren 31ra arte, III. eta IV. eranskinetan jasota egonik Letoniara eramaten diren hondakin guztiek eta, era berean, eranskin horietan jasota ez dauden baina balorizatzeko lekualdatzen diren hondakinek nahitaez bete beharko dituzte aurretiazko idatzizko baimenaren eta jakinarazpenaren prozedurak, II. tituluari jarraiki.
- Hamabigarren artikuluan xedatutakoa gorabehera, agintari eskudunek kontrako arrazoiak eman ahal izango dituzte, III. eta IV. eranskinetan jasota dauden eta balorizatzeko lekualdatzen diren hondakinei dagokienez. Orobat, agintari eskudunek kontrako arrazoiak eman ahal izango dituzte, eranskin horietan jasota ez dauden eta balorizatzeko lekualdatzen diren hondakinei dagokienez, betiere, hondakin horiek aldi baterako salbuespena hartu duen instalazio batera eramaten badira, 96/61/EE Zuzentarauaren xedapen jakin batzuei begira, helmuga den instalazioari aldi baterako salbuespena ezartzen zaion denboraldian.

2. 2012. urteko abenduaren 31ra arte, III. eranskinetan jasota dauden eta Poloniara eramaten diren hondakin guztiek nahitaez bete beharko dituzte aurretiazko idatzizko baimenaren eta jakinarazpenaren prozedurak, II. tituluari jarraiki.

Hamabigarren artikuluan xedatutakoa gorabehera, 2007. urteko abenduaren 31ra bitartean, Poloniako agintari eskudunek kontrako arrazoiak eman ahal izango dituzte, III. eta IV. eranskinetan jasota dauden eta balorizatzeko lekualdatzen diren hondakinei dagokienez, betiere, 11. artikuluan ezarritako arrazoiak betez; hona hemen hondakin horiek zeintzuk diren:

B2020 eta GE020 (beirazko hondakinak)

B2070

B2080

B2100

B2120

B3010 eta GH013 (plastikozko materia solidoen hondakinak)

B3020 (paperezko hondakinak)

B3140 (pneumatikoen hondakinak)

Y46

Y47

A1010 eta A1030 (artsenikoari eta merkurioari dagozkion puntuak bakarrik)

A1060

A1140

A2010

A2020

A2030

A2040

A3030

A3040

A3070

A3120

A3130

A3160

A3170

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

A3180 [naftaleno polikloratuei baizik ez zaie ezartzen (PCN)]	RB020,
A4010	eta
A4050	b) Balorizatzeko eramaten diren eta eranskinetan jasota ez dauden hondakinak.
A4060	Hamabigarren artikuluan xedatutakoa gorabehera, agintari eskudunek kontrako arrazoiak eman ahal izango dituzte, III. eta IV. eranskinetan jasota dauden eta balorizatzeko lekualdatzen diren hondakinei dagokienez. Orobat, agintari eskudunek kontrako arrazoiak eman ahal izango dituzte, eranskin horietan jasota ez dauden eta balorizatzeko lekualdatzen diren hondakinei dagokienez, betiere, hondakin horiek aldi baterako salbuespena hartu duen instalazio batera eramaten badira, 96/61/EE Zuzentarauaren xedapen jakin batzuei begira, helmuga den instalazioari aldi baterako salbuespena ezartzen zaion denboraldian.
A4070	
A4090	
AB030	
AB070	
AB120	
AB130	
AB150	3. 2011. urteko abenduaren 31ra arte, III. eta IV. eranskinetan jasota dauden eta Eslovakiara eramaten diren hondakin guztiek eta, era berean, eranskin horietan jasota ez dauden eta balorizatzeko lekualdatzen diren hondakinek nahitaez bete beharko dituzte aurretiazko idatzizko baimenaren eta jakinarazpenaren prozedurak, II. tituluarekin bat etorrira.
AC060	
AC070	
AC080	
AC150	Hamabigarren artikuluan xedatutakoa gorabehera, agintari eskudunek arrazoiak emango dituzte III. eta IV. eranskinetan aipatzen diren eta balorizatu nahi diren hondakinak lekualdatzearen kontra, eta, era berean, eranskin horietan aipatzen ez diren eta – helmugako instalazioari aldi baterako salbuespena aplikatzen zaion bitartean– xedapen batzuetatik aldi baterako salbuespena dagoen instalazio batera eramateko balorizatu nahi diren hondakinak lekualdatzearen kontra; honako hauek dira xedapenak: Europako Kontseiluaren 94/67/EE Zuzentarauak ⁽¹⁾ , 96/61/EE Zuzentarauak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko abenduaren 4ko 2000/76/EE Zuzentarauak – hondakinak errausteari buruzkoa denak– ⁽²⁾ , eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001eko urriaren 23ko 2001/80/EE Zuzentarauak – errakuntzako instalazio handiek atmosferara isur ditzaketan agente kutsatzaile jakin batzuen isurketa mugatzen duenak– ⁽³⁾ ezarritako xedapenak.
AC160	
AC260	
AD150.	
Beirazko eta paperezko hondakinekin eta pneumatikoen hondarrekin izan ezik, epe hori luzatu ahal izango da, gehienez 2012. urteko abenduaren 31ra arte luzatu ere, 2006/12/EE Zuzentarauak 18. artikuluan 3. paragrafoan jasota duen prozedura betez.	
Hamabigarren artikuluan xedatutakoa gorabehera, 2012. urteko abenduaren 31 iritsi bitartean, agintari eskudunek kontrako arrazoiak eman ahal izango dituzte, 11. artikuluan ezarritako arrazoiak betez, honako hondakin hauek Poloniara eramaten direnean:	
a) Balorizatzeko eramaten diren eta IV. eranskinean jasota dauden hondakin hauek:	4. 2014. urteko abenduaren 31ra arte, III. eranskinean jasota dauden eta Bulgariara eramaten diren hondakin guztiek nahitaez bete beharko dituzte aurretiazko idatzizko baimenaren eta jakinarazpenaren prozedurak, II. tituluarekin bat etorrira.
A2050	
A3030	
A3180 [naftaleno polikloratuak alde batera utzita (PCN)]	Hamabigarren artikuluan xedatutakoa gorabehera, 2009. urteko abenduaren 31ra bitartean, Bulgariako agintari eskudunek kontrako arrazoiak eman ahal izango dituzte, III. eta IV. eranskinetan jasota dauden
A3190	
A4110	
A4120	

¹ 365 EO L, 1994-12-31, 34. or.

² 332 EO L, 2000-12-28, 91. or.

³ 309 EO L, 2001-11-27, 1. or. 2003ko Atxikitze Aktak aldatutako Zuzentaraua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

eta balorizatzeko lekualdatzen diren hondakinei dagokienez, betiere, 11. artikuluan ezarritako arrazoiak betez; hona hemen hondakin horiek zein diren:	AB150
	AC060
B2070	AC070
B2080	AC080
B2100	AC150
B2120	AC160
Y46	AC260
Y47	AD150.
A1010 eta A1030 (arsenikoari eta merkurioari buruzko puntuak bakarrik)	Denboraldi hori luzatu ahal izango da, gehienez ere 2012. urteko abenduaren 31ra arte, 2006/12/EE Zuzentarauak 18. artikulua 3. paragrafoan jaso duen prozedurarekin bat etorruta.
A1060	
A1140	Hamabigarren artikuluan xedatutakoa gorabehera, 2009. urteko abenduaren 31ra bitartean, Bulgariako agintari eskudunek kontrako arrazoiak eman ahal izango dituzte Bulgariara eramaten diren hondakinei dagokienez, betiere, 11. artikuluan ezarritako arrazoiak betez; hona hemen hondakinak zein diren:
A2010	
A2020	
A2030	
A2040	a) Balorizatzeko eramaten diren eta IV. eranskinen jasota dauden hondakin hauek:
A3030	A2050
A3040	A3030
A3070	A3180 [naftaleno polikloratuak alde batera utzita (PCN)]
A3120	A3190
A3130	A4110
A3160	A4120
A3170	RB020,
A3180 [naftaleno polikloratuei baizik ez zaie ezartzen (PCN)]	eta
A4010	b) Balorizatzeko eramaten diren eta eranskinetan jasota ez dauden hondakinak.
A4050	
A4060	Hamabigarren artikuluan xedatutakoa gorabehera, Bulgariako agintari eskudunek kontrako arrazoiak eman beharko dituzte, III. eta IV. eranskinetan jasota dauden eta balorizatzeko lekualdatzen diren hondakinei dagokienez. Orobat, agintari eskudun horiek kontrako arrazoiak eman beharko dituzte, eranskin horietan jasota ez dauden eta balorizatzeko lekualdatzen diren hondakinei dagokienez, betiere, hondakin horiek aldi baterako salbuespena hartu duen instalazio batera eramaten badira, 96/61/EE Zuzentarauaren edo 2001/80/EE Zuzentarauaren xedapen jakin batzuei begira, helmuga den instalazioari aldi baterako salbuespena ezartzen zaion denboraldian.
A4070	
A4090	
AB030	
AB070	
AB120	
AB130	

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

5.	2015. urteko abenduaren 31ra arte, III. eranskinean jasota dauden eta Errumaniara eramaten diren hondakin guztiek nahitaez bete beharko dituzte aurretiazko idatzizko baimenaren eta jakinarazpenaren prozedurak, II. tituluari jarraiki.	A4030 A4040 A4050
	Hamabigarren artikuluan xedatutakoa gorabehera, 2011. urteko abenduaren 31ra bitartean, Errumaniako agintari eskudunek kontrako arrazoiak eman ahal izango dituzte, III. eta IV. eranskinetan jasota dauden eta Errumaniara eramaten diren hondakinei dagokienez, betiere, 11. artikuluan ezarritako arrazoiak betez; hona hemen hondakinak:	A4080 A4090 A4100 A4160
	B2070	AA060
	B2100 (aluminazko hondakinak alde batera utzita)	AB030
	B2120	AB120
	B4030	AC060
	Y46	AC070
	Y47	AC080
	A1010 eta A1030 (artsenikoari, merkurioari eta talioari dagozkion puntuak bakarrik)	AC150 AC160
	A1060	AC260
	A1140	AC270
	A2010	AD120
	A2020	AD150.
	A2030	
	A3030	Denboraldi hori luzatu ahal izango da, gehienez ere 2015. urteko abenduaren 31ra arte, 2006/12/EE Zuzentarauak 18. artikulua 3. paragrafoan jasotzen duen prozedurarekin bat etorrita.
	A3040	
	A3050	Hamabigarren artikuluan xedatutakoa gorabehera, 2011. urteko abenduaren 31ra bitartean, Errumaniako agintari eskudunek kontrako arrazoiak eman ahal izango dituzte, Errumaniara eramaten diren hondakinei dagokienez, betiere, 11. artikuluan ezarritako arrazoiak betez; hona hemen hondakinak zein diren:
	A3060	
	A3070	
	A3120	
	A3130	a) Balorizatzeko eramaten diren eta IV. eranskinean jasota dauden hondakin hauek:
	A3140	
	A3150	A2050
	A3160	A3030
	A3170	A3180 [naftaleno polikloratuak alde batera utzita (PCN)]
	A3180 [naftaleno polikloratuei baizik ez zaie ezartzen (PCN)]	A3190 A4110
	A4010	

A4120

RB020,

eta

- b) Balorizatzeko eramaten diren eta eranskinetan jasota ez dauden hondakinak.

Denboraldi hori luzatu ahal izango da, gehienez ere 2015. urteko abenduaren 31ra arte, 2006/12/EE Zuzentarauak 18. artikulua 3. paragrafoan jaso duen prozedurarekin bat etorrira.

Hamabigarren artikuluan xedatutakoa gorabehera, Errumaniako agintari eskudunek kontrako arrazoiak eman beharko dituzte, III. eta IV. eranskinetan jasota dauden eta balorizatzeko lekualdatzen diren hondakinei dagokienez. Orobat, agintari eskudun horiek kontrako arrazoiak eman beharko dituzte, eranskin horietan jasota ez dauden eta balorizatzeko lekualdatzen diren hondakinei dagokienez, betiere, hondakin horiek aldi baterako salbuespena hartu duen instalazio batera eramaten badira, 96/61/EE Zuzentarauaren, 2000/76/EE Zuzentarauaren edo 2001/80/EE Zuzentarauaren xedapen jakin batzuei begira, helmuga den instalazioari aldi baterako salbuespena ezartzen zaion denboraldian.

6. Artikulu honek II. titulua aipatzen duenean, III. eranskinean jasota dauden hondakinei dagokienez, honako artikulua hauek ez dira ezarriko: 3. artikulua 2. paragrafoa, 4. artikulua bigarren lerrokadaren 5. puntua, eta 6., 11., 22., 23., 24., 25. eta 31. artikulua.

64. artikulua

Indarrean sartzea eta aplikatzea

1. *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu, eta hiru egun igaro ondoren jarriko da indarrean Erregelamendu hau.

2007. urteko uztailaren 12tik aurrera aplikatu ahal izango da.

2. Bulgaria eta Errumania atxikitzen diren eguna 1. paragrafoan jasota dagoen aplikazio-dataren ondorengo baldin bada, 63. artikulua 4. eta 5. paragrafoak aplikatuko dira estatu horiek atxikitzen diren egunetik aurrera, artikulua honen 1. paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe.

3. Tartean dauden estatuek horrela erabakitzen badute, 26. artikulua 4. paragrafoa 2007ko uztailaren 12a iritsi aurretik aplikatu ahal izango da.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak eta Estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzekoak izango dira.

Estrasburgon, 2006ko ekainaren 14an.

Europako Parlamentuaren izenean,
Lehendakaria
J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean,
Kontseiluburua
H. WINKLER